

Kultura

Beñat Egiarte: "Medikuntza ikasi dudan arren, nahiko argi eduki dut beti nire bokazioa kantatzea zela". > 21



JAIK!

OTXANDIO
ZORNOTZA



Oihana Azkorbebeitiak ez du entrenatzailerik eta ezta entrenatzeko eskema finkorik ere. Sentsazioak gidari dituela, aurten sekulako mailan dabil, bederatzigaraipen lortuta. Munduko kopako hiru proba lehiatuko ditu uztailean. > 26-27

*“Sentsazioei jarraituz
entrenatzen naiz”*

Argazkia: Leñor Eiorriaga

“Emakume lez, jende gutxi dabilen arlo horietan desberdindu egin behar gara”



Lourdes Urbieta | Meatzeetako ingeniaria > 10

Landako eskolako jolasgune irekia estaliko dute, herrian lehena

Eguraldi txarra egiten duenean, jolasteko nora jo edukiko dute Durangoko ume eta gurasoek. Izan ere, Landako eskolako jolasgunea estaliko du udalak, dagoeneko eskolaz kanpo ere zabaltzen dena. Bestalde, Kurutzia ikastolan kanpoko espazioa handitu eta eraberritu egingo dute, eta eskolaz kanpo zabaltzeko asmoa dute bertan ere. > 5

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net

PRODUKTU BERRIAKI!



ARE-MAKINA



SASI-GARBITZEKO
MAKINA HORZDUNA



MINIHONDEATZAILEA 1000 KG
ZABALERA 0,80



BELDAR-MINI
DUMPERRA

Durango > 4

Bigarren eraso sexista salatu dute astebeteko tartean

Durangaldea > 3

La Otra Miradak hainbat proiektu abiatu ditu Senegalen

Atxondo > 6

Apatako plaza handitu dute, Euskalerrria kalea autoentzat itxita

Iurreta > 8

Suhiltzaileen koordinazioa indartu dute eremu mugakideetan

Herririk herri

Hiri Antolamendurako Plan berria onartu dute behin-behinean

Oposizioko EAJk eta PSEk hamar urterako plan horren kontra bozkatu dute



Herrigunean autoen presentzia gutxitzea da HAPO berriaren ardatzetako bat.

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Joan zen egueneko ezohiko osoko bilkuran bozkatu zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorren behin-behineko onarpena. Azken bost urteetan burutu

du ten prozesuaren azken arrerko pausoa izan da joan zen egueneko hori. Udal gobernuan dagoen EH Bilduko ordezkariak bozkatu zuten HAPO berri hori behin-behinean onartzearen al-

de. Kontrako botoa eman zuten, aldiz, EAJk eta PSEk.

Bost urtez berrikusten jardun diren plana behin betiko onartzen dutenean, herriaren antolamenduaren datozen ha-

mar urteetako jarraibideak zehaztuta geratuko dira. Hiri-gintzari eta herri antolamenduari dagokienez, Zaldibarrek garatuko duen eredu dokumentu horrexek zehaztuko du.

Besteak beste, herrigunean autoen presentzia gutxitzea, eta Zaldibar oinezkoentzat eta bizikletarientzat herri atsegina izateko neurriak hartzea aurreikusten du dokumentuak. Etor-kizunean etxebizitzak eraikitze-kotan horiek babes sozialekoak izan beharko lirakekeela, edota herriko hainbat lursail nekazaritza-arako gordetzea ere jasotzen du dokumentuak.

EH Bilduko udal gobernuak nabarmendu duenez, herri-tarren parte-hartzea bultzatu gura izan dute plan berria diseinatzerako orduan. HAPOren berrikuspen prozesuak iraun duen bost urteetan hamar tailer egin dituzte herritarren ekarpenak jasotzeko, eta jendaurreko hainbat aurkezpenetan azaldu dituzte planaren ideia nagusiak. “Jende askok inplikazio handia erakutsi du proiektu hau aurrera ateratzeko”, azpimarratu du Arantza Baigorri alkateak.

Inplikazio horren kontrako muturrean, oposizioaren “utzikeria eta interes falta” kritikatu ditu Arantza Baigorri alkateak asteon zabaldu duen prentsa oharrean. “HAPOren diseinuan parte hartu duten herritar, profesional eta zinegotzietatik errespetu falta” deritzo Baigorri oposizioaren kontrako botoari. “Herri proiektu baten kontra bozkatu dute”, dio.

PROIEKTU NAGUSIAK

- N634ko zirkulazioa arindu eta oinezko zirkulazioa finkatzea Artia, Aranguren eta erdigunearen artean.
- Oinezkoentzako eta txirringarientzako espazio publiko berreskuratzea.
- San Andres auzoaren eta erdigunearen arteko lotura hobeketa eta seguruagoak izateko aukerak aztertzea.
- Ospitale psikiatrikoko lorategia parke publiko bihurtzea.
- Ego ibaiaren inguruan parke bat egitea.

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Etxebizitza eskubidearen aldeko Barrura taldeko kideek kanpaldia egin zuten joan zen asteburuan udaletxeko arkupeetan. Zapatuan, alokairu soziala bultzatzeko diseinatzen ari diren plana aurkeztu zuten. Gazteek emantzipatzeko dauzkaten arazoak konponbidea emateko bi aukera aztertu dituzte alokairu sozialerako plan hori osatzeko.

“Espkulazioa amaitu eta alokairu soziala martxan jartzeko” bi bide ikusten ditu Barrurak, Pello Zabarte kidearen arabera: alokairu instituzionala, batetik, eta alokairu herritarra, bestetik. Alokairu instituzionalaren kasuan, udalak garaturiko politikak izango lirakeke ardatza. Bigarren aukeran, aldiz, udalak ez luke parte hartuko, eta

etxe-jabeen eta herritarren arteko adostasuna izango litzateke oinarria, Barrura ekimenaren bitartekaritza. Osaturiko proposamen bi horien inguruko ekarpenak jaso gura dituzte, orain, Barrura ekimeneko kideek, eta datorren ikasturtean plana gehiago gizarteratu eta praktikara eramatea.

Duela bi urte, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoaren inguruan hausnartzen hasi ziren Gaztetxeko hainbat kide, eta Barrura taldea sortu zuten. Zaldibarko gazteen egoeraren inguruko inkesta bat egin zuten, eta etxebizitza eskubidearen aldarria sozializatzen ibili dira orduetik, hainbat ekimenekin: etxe hutsen datua eta gazteak emantzipatzen diren batez beste adinarena gizarteratu zituzten.

Alokairu soziala bultzatzeko plana osatu dute Barrura taldeko kideek

Plan horren berri eman zuten joan zen zapatuan egin zuten aurkezpenean



Asteburuan udaletxeko arkupeetan akanpatuta egon ziren Barrura ekimeneko kideak.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko uztailaren 7a
14. urtea - 684. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txinturreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Fokuak instalatzen ibili dira azkenaldian.



Meskita bitan ipini dituzte eguzki-plakak.

La Otra Mirada taldeko boluntarioen lana, Senegaleko hainbat lagunentzako argia

Senegal hegoaldean eguzki-plakak eta fokuak ipini ditu Durangaldeko elkartasun elkarteak

DURANGALDEA M. Onaindia Senegalen eta Mongolian laguntza proiektuak garatzen ditu Durangaldeko La Otra Mirada elkarteak, eta boluntarioen lana beharra duten hainbat lagunentzako argi bihurtzen da. Senegal hegoaldean, adibidez, eguzki-plakak eta fokuak ipini dituzte herri bitan.

Elena Ariznabarreta iurretarrak esplikatu du eskola batean, bulego batean eta meski-

tetan instalatu dituztela eguzki-plakak, argindarra sortu ahal

Datorren ikasturtean, emakumeek lan egiteko xaboi fabrika bat muntatuko dute

izateko. Gainera, etxeetan foku mugikorrek banatu dituzte;

mugitu ahal izatera, etxeetan ez ezik beste leku batzuetan ere erabili ahal dute argia.

Ura, eskolarako

Ez da hori Senegalen duten proiektu bakarra. Iaz, iparraldean, eskola batera ura eramateko kanalizazioa egin zuten. Aurrera begira ere badute ideiarik; datorren ikasturtean, emakumeek lan egiteko xaboi fabrika bat muntatuko dute

herrialdearen hegoaldeko partean. Genero ikuspegia ere

Ariznabarreta:

“Eskerrak eman gura dizkiegu laguntzen parte hartzen duten guztiei”

lantzen dute, beraz. Bestalde, Mongolian ume elbarrituei zu-

zendutako eguneko zentro bat zabaldu dute.

Laguntzaileei eskerrak

La Otra Miradaren egitasmo hauek ez lirateke posible izango boluntarioen lanik barik eta makina bat herritar eta eragileren laguntzarik barik. “Eskerrak eman gura dizkiegu laguntzen parte hartzen duten guztiei”, adierazi du Ariznabarretak. Kanean ipinitako postuak, egutegiak, herritarren diru-ekarpenak, moto kontzentrazioak, erakunde eta elkarten diru-laguntzak... Era askotan jasotzen dute ekarpena, beharra dutenen alde beste begirada batez lan egiteko. www.laotramirada.info webgunean topa daitezke informazioa eta laguntzeko bideak.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Matrikula

Uztailaren 13tik 19ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa • Nazioarteko Merkataritza 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industrialia • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa • Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592

Durangoko gobernu taldeak 200 ekintza iragarri ditu, datozen urte bietan garatzeko

2019ra arteko gestio plana aurkeztu du EAJk eta PSE-EEk gidatutako udaleko zuzendaritza taldeak

DURANGO Markel Onaindia 2019ra arteko gestio planaren berri eman dute EAJk eta PSE-EEk osatutako gobernuaren izenean Aitziber Irigoras alkateak eta Mari Jose Balier eta Pilar Rios alkateordeek, eu-

rei laguntzen udaleko idazkaria, kontu-hartzailea, arkitektoa eta erakunde autonomoetako presidentea egon direla. Izan ere, udalean sortutako zuzendaritza taldea osatzen dute zazpi horiek; proiektuak epeetan jarri eta

jarraipena egiten diete. 2016ko urritik ibili dira gestio plana lantzen. 200 ekintza jaso dituzte.

Hiru batzordetara Antolaketa aldaketak egiteko asmoa dute. Nagusia, udal ba-

tzordeei lotutakoa; zazpi batzordetatik hirutara pasatu gura dute. Antolaketa, Herritartasuna eta Lurralde izango lirateke osoko bilkuran onartu beharrekoak. Hain zuzen, 200 ekintzak hiru adar horien baitan zehaztu dituzte. Momentuz, 2017ko udal aurrekontua onartu barik dago, baina ez omen da arazo izango proiektuekin aurrera egiteko.

Erronka eta helburuak Irigorasek esan du "Durango erakargarriagoa, kohesionatua, ongizate maila altuagokoa, berdintasun gehiago bermatzen duena, identitate propioduna, parte-hartzailea, euskalduna, jasagarria, dinamikoa eta gizarte eta ingurumen mailan konprometitua" lortu gura dutela planagaz. Riosen arabera, "herritarren bizi-kalitatea hobetzea" da helburu nagusia, eta planagaz egin duten "eredu aldaketa eta esfortzua" nabarmendu ditu. Balierren esanetan, herritarrei begirako "hirigintza atsegina eta eroso" garatzeko nahia agertu du.

EKINTZA ESANGURATSUAK

- Merkatu plaza berritzea.
- Antso Estegizeko konponketak.
- Aramotz Berritu proiektua.
- San Faustoko Kapitanena baserria egokitzea.
- Udal weba eraldatzea.
- E-administrazioa sortzea.
- Hirigintza genero ikuspegitik antolatzea.
- Txakurrak solte ibiltzeko guneak atontzea.
- Zebra-bideak hobetzea.
- Aparkalekuak hobetzea.
- Inkestak egitea.
- Udal kode etikoa sortzea.
- Euskara plana prestatzea.
- Langabeen kontratazioa sustatzea.
- Ezkurdiko erakusketaren aretoa hobetzea.
- Padel pista gehiago egitea.
- Alokairuko etxeak gazteei bideratzea.
- Kanpatorrostetako plaza berritzea.
- Errekak eta ertzak garbitzea.
- Zarataren ekintza plana onestea.
- Energia berriztagarriak sartzea aztertzea.
- Hegoaldeko erantzuna eraikitzea.
- Bizikleta Plana bultzatzea.



Ezkerretik hasita, Balier, Irigoras eta Rios, astelehenean emandako prentsaurrekoan.

Bigarren eraso sexista, astebeteko tartean

Emakume bat osasun zerbitzuek artatu zuten

DURANGO M.O. Eraso sexista bat gertatu zen astelehenean Durangon, eta emakumea ertzainek eta osasun zerbitzuek artatu behar izan zuten. Gizon bat atxilotu dute erasoagaz lotuta. Astebetean bigarren eraso sexista da.

Udalak informatu du erasoaz, eta indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatzen du. Babesa erakutsi dio ema-

kumeari, eta atzorako 20:00etan deituta zegoen elkarretaratzeko deia egin zuen.

Udalak informatu du erasoaz, eta indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatzen du.

Lege aholkuak doakoak dira adinekoentzat

Zerbitzua Durangon ere ematen du Aldundiak



Askatasun Etorbidean dago Aldundiaren bulegoa.

DURANGO M.O. Lege aholkularitza doan eskainiko die Aldundiak 60 urtetik gorakoei. Bizkaiko Abokatuen Bazkunagaz lankidetzan, zerbitzua lurraldeko sei bulegotan ematen da astelehenetik, tartean Durangon, Askatasun Etorbideko egoitzan. Orain arte Bilbon bakarrik eskaintzen zen.

Aldundiko ordezkarien esanetan, nora jo ez duten adinekoek laguntzea da euren asmoa. "Arazo juridikoek ezinezon handia, zalantzak eta segurtasunik eza eragiten dizkiete pertsona nagusiei, arazo gaindiezen bihurtzeraino", esan du Gizarte Ekintzako foru diputatuak, Isabel Sánchez Roblesek.

anboto.org
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

DESKARGATU DOAN!

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

Landakon, aterpea edukiko duen herriko lehen jolasgune irekia

Dagoeneko eskolaz kanpoko ordutegian ere zabalik egoten da ikastetxeko jolasgunea

DURANGO Markel Onaindia Landako eskolako jolasgunea estali egingo dute, eguraldi txarra dagoenean herriko umeez aterpean jolastu ahal izateko. Aterpea edukiko duen herriko lehenengo jolasgune irekia izango da, dagoeneko eskolaz kanpoko ordutegian ere zabalik egoten den patioan.

EH Bilduk iragarri zuen aste honetan egingo zutela udalean estalkiaren obraren adjudikazioa. Proposamen hori iazko udal aurrekontuan sartu zuen alderdiak, eta gobernuak orain hasiko du obra egia bihurtzeko

Ikasturterako amaituta egotea espero da, udazkenean eta neguan aterpea edukitzeko

prozesua. EH Bilduk azaldu du obra datorren ikasturterako amaituta egotea espero dela, udazkenean eta neguan aterpea edukitzeko.

600 sinaduratik gora

Ekimen herritar batek sinadura bilketa egin zuen 2015ean, aterpeak eskatzeko. 600 sinaduratik gora batu zituen Alaitz Arizagak Interneten hasitako eskaerak, eta babes horregaz osoko bilkurara eraman zuen gaia. Eguraldi txarra egiten duen egunetan, aterpea duten jolasguneen falta sumatzen zuten Durangon. Badirudi hainbat gurasoren eskaera bete egingo dela irailetik aurrera.

Bestalde, Errotaritxuenako jolas parkean ere hobekuntzak iragarri ditu udalak, 2018an hasi eta amaituko litzatekeen obra batez.



Ikastetxeko umeez gainerakoek ere jolastu dezakete Landakon eskolaz kanpoko ordutegian.

Ikastolako jolasgune berria herrira zabaltzeko gura dute

Kurutziagak jolasgunea bertutuko du datorren ikasturterako, hezkidetzak, natura eta partaidetza oinarri hartuta.

Gaizka Uriartek azaldu du guraso talde batek prozesu bat sustatu duela ikasleen iritzia ezagutzeko. Alde batetik, gaur egun zelan eta non jolasten diren aztertu dute, eta aurrez

uste zutena egiaztatu da: mutilek hartzen dute protagonismoa –batez ere futboleant–, eta neskak kantxaren albo batean geratzen dira. Bestetik, umeez zer gura duten galde-tuta, aterpeak eta lasai berba egiteko mahaiak eskatu dituzte, adibidez. Ondorioz, parkea, bidexkak, antzetzoki bat eta

muinoak sortuko dituzte, besteak beste.

Gainera, jolasgunean integratuko dute txalet berrietarainoko lursaila, udalak lagata. Ia aho batez onartu zuten bilkuran –PP abstenitu zen soilik– eta Urko Rodriguez zuzendariak eskerrak eman dizkie. Trukean, jolasgunea herrira zabalik egongo da astegunetan, 20:30era arte, zapa-tuetan goizez, eta jaiegunetan ere zabalitzeko borondatea dute, zehaztu barik egon arren.

“Hau guztia kontuan hartuko dugu eskolaren funtzionamendurako”

Gaztelania hutsezko kontseiluagatik barkamena eskatu du Hizkuntza Eskolak



EHEko kideek pankarta eskegi zuten Hizkuntza Eskolan, salaketa egin eta Ealo babesteko.

DURANGO M.O.

Hizkuntza Eskolak barkamena eskatu du azkeneko kontseilua gaztelania hutsean egiteagatik. Izan ere, sare sozialetan kritika hori egin zuen partaideetako batek, Marina Ealo ikasleen ordezkariak. Ealoren arabera, otsailan ere gaztelania hutsean egin zuten eskola kontseilua. “Ez zait normala iruditzen, larria baizik”. Batzarraren amaieran euskararen erabilera defendatu zuen, eta “kargu hartu” ziotela dio. Bere esanetan, kontseilukide bakarrak ez zekien euskaraz, eta horrek “jarrera zalapartaria” eduki zuen. Beste kontseilukideak isilik geratu zirela gaineratu du.

Hizkuntza Eskolako zuzendaritzak oharra bidali du ANBOTOra. “Gaztelaniaz jar-

dun genuela aitortu behar dugu bileran geundenetako hamasei lagunetik bik euskara ez dakitelako eta hirugarren batek A1 maila gainditu berri duelako. Horregaz ez dugu geure burua ezelan ere zuritu gura, argi dago ez genuela behar bezala jokatu”. Minduta sentitu direnei barkamena eskatu diete. “Hau guzti hau, hemendik aurrera, kontuan hartuko dugu eskolako funtzionamendurako”, esan dute.

EHEk eta Berbarok Ealo babestu dute. Eskolak akatsa onartu eta neurriak hartzea “aurre-rapausoa” dela dio Berbarok, eta euskararen hedapenean bidelagun izateko lanean jarraituko dutela. EHEren ustez, “hizkuntza eskubideak borrokatzea merezi” duela ikusi da gai honegatz.

* Ikusi baldintzak deman. SCHMIDT GROUPE SA E - RCS COLMAR 8 314 784 709 - Credit argazki : Atelier Marc BARRAL BARON - Visitatib eta A Preview - Argazkiak ez dira kontsumitzaileak

“BEHERAPENAK”

UZTAILAREN 1etik 22ra

SCHMIDT ABADIÑO
Plaza eta aurzoa 2/g - 178 lokala
Eroski saltokigunea - ARADINO
Tel.: 946 526 195 - info@schmidt-abadiano.com
www.schmidt-cocinas.es

SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar



10

25

1ª Marca Europea

Apatako plaza handitu dute Euskalerrria kalea autoentzat itxita

Kale Irekiak prozesutik irtendako lehen proiektua burutu dute Atxondon



Herriko plaza eta udaletxe ingurua eraberritu dituzte.

ATXONDO M. Zuazubiskar Hainbat atxondarrek Kale Irekiak prozesuan proposatutakori jarraituz, Apatako erdigunea den plaza eta udaletxe ingurua atontzen ibili dira Atxondon. “Kale Irekiak prozesuan, herriko erdigunea konpontzeko proiektuak izan zituen botorik gehien, eta proiektu horregaz ekitela ezinbestekotzat jotzen genuen”, adierazi du David Cobos Atxondoko alkateak. “Orain arte plaza txiki bat genuen, eta jende gehien batzen den gunea dela kontuan hartuta, zerbait egitea beharrezkoa zen”, gaineratu du alkateak.

Azken aste hauetan eraisketa eta asfaltatze lanetan ibili dira herriko plaza inguruan. Gune eraberrituak azken ukituak falta dituen arren, datozen eguetan lanak amaitzeko asmoa dutela jakitera eman du Atxondoko alkateak. “Zebra-bideren bat eta plaza atontzeko altzari-zen batzuk jartzea gelditzen diren arren, lanen zatirik handie-

na bukatuta dago”, adierazi du David Cobosek.

Horrez gain, herri erdiguneko lan hauetan herriko gazteek Kale Irekiak prozesuan egindako eskariari erantzunez, Apatako plazari kolorea eman diote.

Euskalerrria kalea, itxita

Bestalde, David Cobos alkateak jakitera eman duenez, Euskalerrria kalea trafikoarentzat itxita geldituko da, eta, horrela, Apatako erdigunea, plaza eta udaletxe ingurua oinezkoentzako gune bilakatuko dira.

Aurrera begira

38.500 euroko aurrekontua izan duen herriko plazaren eraberritze-lana Kale Irekiak prozesuko proiektu bat besterik ez da izan. David Cobos alkateak jakitera eman duenez, prozesutik irtendako proiektu gehiago egin gura dituzte aurrerantzean, baina, lehenengo, urtea nola doan ikusiko dute, zein proiektugaz aurrera egin erabakitzeko.

Axpetarrak Larranora errogatiban

ATXONDO M. Zuazubiskar Larranon dagoen Santa Barbara ermita Atxondoko lurretan dago, eta axpetarrek zaintzen dute, auzolanean. Aspaldiko ohiturari eutsiz, zapatuan Santa Barbara ermitara errogatiban joango dira axpetarrak.

8:30erako jarri dute hitzordua. Axpeko plazatik irten, eta denak elkarregaz Larranora igoko dira. Larranon, Santa Barbara ermitan, meza egongo da, 11:30ean. Eta ostean, hamarretakoa egiten batuko dira denak.

Bazkaria Atx-Azpin Ondoren, Axpera jaitsi, eta izaz bezala Atx-Azpin elkartean bazkaria egingo dutela jakitera eman dute antolatzaileek.

59 umek eman dute izena udalekuean

MALLABIA Jone Guenetxea Joan zen astelehenean, ekainaren 26an, ekin zieten Mallabiko udalekuei. Uztailaren 21era bitartean, Mallabiko 59 umek parte hartuko dute Satxibu aisialdi taldeak antolatutako egitarauan. 9:30etik 13:00etara, ekintza ugaritan parte hartzen dute ume mallabitarrek. Horrez gainera, astean behin irteera bat egiten dute. Aste honetan bertan Karrantzara osteratxoa egin dute.

9:30etik 13:00etara, ekintza ugaritan parte hartzen dihardute ume mallabiarrek

Maite Roblesek irabazi du Berrizko Institutuko agendaren lehiaketa

Parte-hartzaile guztien lanekin osatuko dute ikasturte berriko agenda

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Ikasturte berrian Berrizko institutuko ikasle eta irakasleek erabiliko duten agendaren diseinua lehiaketa bidez aukeratu dute Berrizen, beste behin. Aurten, Maite Robles Ceronek

irabazi du lehiaketako lehen saria. Beraz, 100 euroko bonua eskuratu du, herriko denda eta tabernetan gastatzeko.

Lehiaketako bigarren saria Ainhoa Colino Biellak irabazi du: 75 euroko bonua. Eta hiru-

garrena Usune Valdes Gallegok: 50 euroko bonua.

Horrez gain, Berrizko Udaleko Euskara Sailaren laguntzagaz egiten duten agendan partaide guztien lanak agertuko direla jakitera eman dute.



Sari banaketako argazkia.

ERMUA SANTIXAUAK 2017
TXIKURIXA

Euskal Birusa Elkarte eta ANTXITXIKETAN
Euskal begiraleen taldeak kudeatutako TXOSNA.

UZTAILAREN 15, 22, 24, 25, 26 ETA 27AN ZABALIK.
PRIMERAKO GIROA ETA OGITARTEKOAK GOXO-GOXOAK!

aTaRa ZARaTa!
GORA SANTIXAUAK!

Erdiko kale, 5
Plaza ondoan



IURRETA Aitziber Basauri
Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak suhiltzaileen zerbitzuen koordinazioa indartuko dute mugakide diren eremuetan gertatzen diren larrialdiei “modu eraginkorragoan” erantzuteko. Horretarako, hiru foru aldundiek lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Suteetan, salbamenduetan eta materia arriskutsue-

Bengoetxea: “Larrialdi egoera baten aurrean ahalik eta lasterren erantzuteko egin dugu bat”

kin gertatzen diren istripuetan suhiltzaileen mobilizazioa eta esku-hartzea arautzen du hitzarmen horrek.

Turretako suhiltzaile-etxean aurkeztu dute lau urteko indarraldia duen akordioa, asteon. Bertan izan dira Ibone Bengoetxea Bizkaiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatua, Imanol Lasa Gipuzkoako Gobernantza diputatua eta Pilar Garcia de Salazar Arabako aldun nagusiordea. Bizkaiko Aldundiko ordezkari Ibone Bengoetxeak nabarmendu duenez, “larrialdi



Hiru aldundietako ordezkariak lurretako suhiltzaile-etxean egin dute lankidetzaz hitzarmena azaltzeko prentsaurrekoa.

Suhiltzaileen koordinazioa indartuko dute Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak

Mugakide diren eremuetan “era eraginkorragoan” erantzungo diete larrialdiei

egoera baten aurrean ahalik eta lasterren erantzuteko egin dugu bat hirurok”.

Erakundeen lankidetzaz

Hiru foru aldundien arteko hitzarmenaren bitartez erakundeen lankidetzaz sustatu gura dute, honako hiru egoera hauen

aurrean: salbamenduetan eta erreskatean; materia arriskutsuen garraioetan istripuak, ihesak, isurketak eta presio edo temperatura aldaketak gertatzen direnean; eta suteak daudenean.

Suhiltzaile-etxeek larrialdietan deia jasoko dute lurraldeagaz

mugakide diren herrietan istripuak gertatutakoan. Laguntza izango dira esku-hartze horiek, eta istripua gertatu den lurraldeko suhiltzaileak heltzen diren momentuan, beraiek hartuko dute operatiboaren agintea eta ardura, egindako agerraldian argitu dutenez.

Bularreko minbizia detektatzeko programa

IURRETA A. Basauri
Bularreko minbizia goiz detektatzeko EAEko programaren barruan, mamografia egiteko hitzordua hartzeko deialdia egin dute. 1946tik 1966ra bitartean jaiotako Iurretako emakume guztiei zuzendutako deialdia da, eta zita postaz egingo dute, Osakidetzako ordezkariak jakinarazi dutenez.

Uztailaren 20an hasita

Uztailaren 20tik abuztuaren 4ra bitartean egingo dira bularreko minbizia goiz antzemateko probak. Galdakaoko erietxean egingo dira probak, detektatzeko unitatean. Programagaz hartu-emanetan jartzeko edo edozein kontsulta egiteko, honako telefono honetara deitu dezakete Iurretako emakumeek: 945 006 061.

Urte birik behin egiten du Osakidetzak bularreko minbizia goiz detektatzeko programa. Beraz, zitzazio jarduerak ere bi urterik behin errepikatuko da, azaldu dutenez.

Berrio-Otxoa eguna ospatu dute Elorrion

Hainbat politikaririk parte hartu zuten ekitaldian



Uztailaren 4an izaten da Berrio-Otxoa eguna.

ELORRIO M.Z.

Martitzenean Berrio-Otxoa eguna, herriko patroia eguna, ospatu zuten Elorrion. Santu eta Bizkaiko zaindikidearen omenezko ospakizunak 12:00etan hasi zituzten, basilikan, meza nagusiagaz.

Aurretik, Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentegaz eta Lorea Bilbao Bizkaiko Euskara eta Kultura Foru diputatuek batera, Idoia Buruaga alkateak eta zenbait udal ordezkari udal txistularien bidez, txistularien doinupean.

Mezaren ostean, trikitilari eta bertsolariak girota, luntxa egin zuten. Eta, arratsaldean, Berrio-Otxoa abesbatzak Santa Anako kaperan abestu zuten.

Udan zehar egingo dituzte Nafarroa Zentroko obrak

Batez ere abuztuan izango direla zehaztu dute

ZORNITZA J.D.

Askotariko zerbitzuak eskaintzen dituen Nafarroa Zentroko eraikinean erreformak egingo dituzte udan zehar. Lanak batez ere abuztuan egingo direla jakinarazi du Zornitzako EA.Jk. Lan guztien aurrekontua 394.706 eurokoa da.

Gizarte Zerbitzuen Zorroak zerbitzu zerrenda bat ahalbidetzea eskatzen du, eta gaur egun Nafarroa Zentroan ez dira horiek guztiak ematen. Falta

diren horiek gehitzea da obren helburua. Eguneko Zentroko lanak lau fasetan egingo dituzte.

Lehenengo fasean 630 metro karratuko gunea birgaituko eta azpiegiturak hobetuko dituzte

Lehenengoan 630 metro karratuko gunea birgaituko dute eta azpiegiturak hobetuko dituzte.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Podologia
R.P.S. 21405

Edinara Urreta Jainaga

**OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

Letxeria inguruko bidegurutzetan oinezkoek izango dute lehentasuna

Errepidea espaloiaaren altuerara igoko dute; saneamendua ere hobetuko dute



Ospital kalean Indusi eta Urigoienagaz bat egiten duen bidegurutzetan egingo dituzte lanak.

OTXANDIO Joseba Derteano Letxeria inguruan bizi direnentzat hango bidegurutzeta pasabide nagusia da Artekalera — Otxandioko erdigunera — joateko. Horrelako bidegurutzetan oinezkoari lehentasuna ematea da udalaren asmoa. Letxeria inguruan irizpide horren arabera berrantolatuko dute Ospital kaleko zati bat, eta beste bidegurutzetaz ere berdina egiteko asmoa dute.

Letxeria inguruan, Urigoiena eta Indusi arteko errepide zatia espaloia mailara igoko dute, plataforma zabal bat sortuz. Hau da, oinezkoen mailara

eramango dute errepidea gune hartan. Autoen abiadura jaisteko eta oinezkoen lehen-

Etorkizunean antzerako neurriak hartu gura dituzte Samartoin eta eskolarako bidegurutzetan

tasuna emateko egingo dute. Oinezkoentzat irisgarriagoa ere bihurtuko da. Seinalezta-penen bidez gogoratuko dute oinezkoen lehentasuna dutela. Etorkizunean ekintza berdina

egin gura dituzte Samartoin, eskolarantz hartzeko bidegurutzetan eta Oletara doan biribilgune inguruan.

Saneamendu lanak

Letxeria inguruan, proiektu beraren barruan, beste hainbat lan ere egingo dituzte. Esaterako, gune horretako saneamendua hobetuko dute. Horregaz batera, ondoko kalea berriz urbanizatuko dute.

Lan horiek guztiak udan eta udazkenean egingo dituzte, eta negurako amaituta egotea da helburua, 120.000 euro inguruko aurrekontuagaz.

Larrunera joateko irteera antolatu dute

GARAI M.O.

Uztailaren 19an Larrun eta Zugarramurdi ingurura joateko irteera antolatu dute Garain. Herriko nagusien elkarteak sustatu du, baina deialdia zabal delako argitu dute. Goizean mendira igo, eta gero Zugarramurdiko jatetxe batean bazkalduko dute. Arratsaldean koba bisitatuko dute, eta Saran ere egongo dira apur batean.

Apuntatu gura dutenek hileren 16a dute azken eguna, Herriko tabernan. 30 euro ordaindu beharko da irteeran parte hartzeko.

Santa Agedako kontainerri eutsiko diote

IZURTZA J.D.

Amankomunazgoak auzotararako sarreretan batu dituzte zabor guneak herri denetan. Izurtzako Udalak eskatuta, Santa Agedakoa mantendu egingo dute, eta udala arduratuko da zakarra Bitañoko gunera eroateaz beteta dagoenean. Santa Ageda ingurua garbi mantentzeko deia egin die udalak herritarrei.

SEI HANKAKO MAHAIA

JOSUNE LÓPEZ GARCIA
PP



Santa Anako Arkua

Durango Erdi Aroko hiribildu harresitua izan zen. Hori badakigu. José Ángel Barrio Lozak diotenaren arabera, Durangoko harresietako zenbait atariren dokumentazio literario edo grafikoa dago, baina bakarria dago gaur egun zutik herrian: *Santa Anako Arkua*. Izen bereko plazan dago, Santa Ana plazan, Gaztelarako bide zaharraren irteeran. XVIII. mendearen amaieratik, gurdien ibildidea izan zen. Hiribilduko monumentu guztien artean atari hau izango da, beharbada, enblematikoa, kanpotik Durango ondoen identifikatzen duena.

Santa Anako Arkua 1566an eraiki zuten, baina, 1743an, orduko sasoiari egokituta, udalak atari errenazentista kendu eta atari barrokoa eraiki zuen. Eta gaur egun ere horixe dugu herrian. Harrotasunez badaukagu ere, apur bat bertan behera utzita daukagu. Egia esan, aspaldi batean zikin eta zaindu gabe ikusten dugu.

Aurreko zutabearen esan nizuenez moduan, PPK proposamen bat egin zuen, zuzenketa bat egin zien 2016ko Durangoko aurrekontuei, Arkua garbi, txukun eta argizatuta izateko.

Hilabete batzuk behar izan dira "irudi zaintzaileak" etortzeko, beste arrazoi batzuen artean, lan hori udan egitea komeni zelako. Aldamia bere lekuan jarrita dago, eta aste gutxi barru Santa Anako Arkua berri-berri izango dugu. Ea denok pozik geratzen garen irudi berriarekin eta ea merezitako moduan gozatzen dugun.

**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

1.000 euroko saria, kartel onenarentzat

DURANGO > San Fausto jaietarako kartel lehiaketa hasi da, eta abuztuaren 31ra arteko epea eman dute lanak aurkezteko. Epaimahaiak hautatutako kartelak Interneten eskegiko dituzte, irailaren 7tik 12ra bitartean herritarrek botoa eman ahal izateko. 14an iragarriko dute irabazlea, 1.000 euro lortuko dituen.

Ipadaren saria 154.557 zenbakiarentzat

DURANGO > Guapa arropa dendan emandako 154.557 zenbakiari egokitu zaio *Salerosketak Be Euskaraz* ekimenaren barruan zotz egin duten 29. iPad-a. Uztailaren 1ean egin zuten ITG taldearen hileroko zozketa. Ordezko zenbakia Cengotita loradendan emandako 152.086 zenbakiari egokitu zaio.

San Pedro Txiki jaia ospatuko dute

BERRIZ > Asteburuan San Pedro Txiki ospatuko dute Berrizen. Bihar, 19:30ean, Donien Atxa jarrita hasiera emango die jaiei. Etzi, 12:30ean, Berrizko San Lorentzo taldeak dantza saioa eskainiko du mezaren ostean. Gainera, Bizidun elkarteak mendi irteera antolatu du San Pedro baselizara, 09:30ean, BBK aurretik.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Herri Mugimenduak Pil-pilean!

Bailara bizia da Durangaldea Herri mugimenduen dagokienez. Hamaika taldetan murgildurik gabiltza. Sektore askotatik eratorriak: ekologistak, antidesarrollistak, feministak, internazionalistak, bazterketa sozialaren aurkakoak, LGTBI, autogestioaren ingurukoak, langileenak, nekazariak, aisialdikoak, presoaren eskubideen aldekoak... Guztiontzat da Joxemi Zumalabe Fundazioaren gonbitea:

Herri mugimenduok gure lan gaitasuna indartu eta biderkatzeko, gogoeta eta elkarlanaz gain, gure burua bitarteko ezberdinez hornitzeko beharra dugula aldarrikatzen dugu. Aldarrikatzeaz gain, behar hori praktikara eramatea izan da gure egiteko nagusietako bat. Hain zuzen ere, aldarri hori ipar harturik sortu genuen 2015. urtean <<Bor Bor (K) Herri Jakintzen Laborategia>> egitasmoa.

Egitasmo honen barruan, Pil-pilean izeneko ikastaroaren 3. edizioa abian jartzera goaz, eta hor doa gure gonbitea! Ikastaroak herri mugimenduen saretzea eta esperientzien trukea bultzatzeko elkargunea izatea nahi du. Nola? Mugimenduen eragiteko zein jakintzak sortzeko gaitasuna landuz, herri jakintza teoriko zein praktikoak formazio eredu askatzaile baten bidean urratsak emanez.

Esperientzia honetan Euskal Herriko hainbat txokotako osagai eta zapoak bildu nahi ditugu, su txikian zein bizian, esperientzu ederra aterako zaigu! Informazio gehiago, *joxemizumalabe.eus* atarian duzue, izena emateko garaiz zabiltzate (uztailaren 15era arte)!

Ainhoa Narbaiza eta Esti Redondo (Joxemi Zumalabe Fundazioko kideak)



Lourdes Urbietak Lemos | Amantegi Taldeko Garraio eta Kalitate zuzendaria | Alonsotegi, 1968

“Bidea apur bat zabaldu dut, baina emakumea hurbiltzen ez den sektorea da gurea”

Bizkaiko Emakumeen Enpresari eta Zuzendari Elkarteak saria eman dio ekainean azken 25 urteko ibilbidea aitortuz

> **BERBAZ** Aitziber Basauri

Lourdes Urbietak 25 urte egin ditu harrobi-lanagaz lotuta. Meatzeen ustiapen bateko zuzendari lez aitzindaria izandakoa, artillaria ere izan zen 1994tik 2001era. Tximista batek zeharkatu ondoren, lehen lerroko lan hori utzi behar izan zuen Garain bizi den emakume honek. Bizkaiko Emakumeen Enpresari eta Zuzendari elkarteak saria eman dio.

Meatzeetako zuzendari fakultatiboa zara. Bizkaian lehenengo emakumea izan zinen. Mundu horri lotuta egon zara beti? Bai, hasieratik, eta dagoeneko 25 urte daramatzat arlo honetan lanean. Harrobi baten alboan jaio nintzen, eta tradizioz ere beti izan dut lotura horregaz. Nire aititek harrobian lan egin zuten, Enkarterrietan. Aitak ere bai. Harrobietan zebiltzan kamioiei begira jaten nuela esaten zidan amak. Oso hurbileko mundua izan dut beti. Ustiapen bateko arduradun nagusia da zuzendari fakultatiboa, meatzeetako ingeniari teknikoa.

Meatzeen ustiapen bateko zuzendari lez aitzindaria izan zinen. Artillaria moduan ere bai. Lotuta daude. Zuzendari fakultatibo izanik, leherketak badaude artillari ere izan behar duzu.

Artillari lanak harrapatu egiten duela diozu.

Bai. Emakume lez, jende gutxi dabilen arlo horietan desberdindu egin behar gara. Leku bat eginenezake, eta leherketetan jende gutxi zegoen — arriskua duen lana ere bada—. Dena den, egia da jakin-mina sortu izan didala beti. Oso lan polita da. Ez daude leherketa bi berdinak; oso jakinaren gainean egon behar duzu, talde oso ona behar duzu... Amantegin oso talde ona izan nuen. Konplizitate bat dago zulatzaileekin, artillariekin...

Lan hori utzi behar izan zenuen, 2001ean. Tximista batek zeharkatu zintuen Ekaitz semearen haurdun zeundela. Leherketa baten izan zen. Ohartu ginen zerua belztu zela, baina ohituta geunden aire zabalean



lan egitera. Tximistak zeharkatu ninduela ez nintzen ohartu ere egin. Lankideek salbatu ninduten. Utzitako arrastoengatik landa-lana utzi behar izan nuen.

Emakume bat gizonen mundu baten. Nola eraman duzu hori? Oso ondo, izan dudana harremana oso ona izan delako. Lehenengo erreakzioa harridurazkoa izan zen, bai: ‘Aiba, emakume bat!’. Baina, gero, harreman oso ona egin didate beti. Egia da ikasketak amaituta bi ezeko borobil izan nituela. Baina ekin egin nuen, eta Mañarian egin nuen karrera-amaierako proiektua. Lana gustatu, eta bide horretatik jarraitzea erabaki nuen. Donostian eman zidaten lehen lana, bulego tekniko batean. Harrobiekin lotutakoa zen hura ere, eta han izan nuen landa-lanagaz lehen harremana.

Beste emakume batzuei bidea zabaldu diezula uste duzu?

Apur bat zabaldu dut bidea, bai. Baina emakumea hurbiltzen ez den sektorea da gurea. Eman da

“*Emakumeak lan-eremuak betetzen ari gara, baina lehen lerroan gutxi gara*”

bilakaera bat. Lan-eremuak betetzen ari gara, baina lehen lerroan oraindik gutxi gara: kalitate edo prebentzio arloan nahiko gaude; aldiz, leherketetan ez.

Nola hartu duzu Bizkaiko Emakumeen Enpresari eta Zuzendari elkartearen saria?

Hasieran, harrituta. Baina, gero, oso ondo. Elkarteak ezagutu dut, eta ikusi dut lanean ari direla emakumea hor aurrean jartzeko, esparru guztietan.

Sektoreari emandako saria dela uste duzu?

Gizartean gaizki ikusitako sektorea da gurea, zelanbait. Alde horretatik, saria arriskuko

apustua, erronka izan dela uste dut. Baina garrantzitsua ere bai. Badakigu ingurumena garrantzitsua dela, eta lanean dabilta. Azken urteetan teknikarien papera asko igarri da, lan handia egiten ari dela uste dut.

Harrobiko lana txarto ikusita dago?

Bai. Istripuekin, leherketekin, herritarren kekek... lotzen da. Baina alde positiboa ere ikusi behar dela uste dut. Harrobitik ateratzen dena gizarteak berak eskatzen duen produktua da. Kareharria beharrezkoa da hormigoia, asfaltoa, aurrefabrikatuak, morteroa, lan publikoak... egiteko. Dugun ondasun hau guk geuk baloratzen dugu gehien. Uraren ostean, lehenagait eskatuena da kareharria, eta, zorionez, Bizkaian oso kareharri ona dugu. Eraikuntzarako erabiltzen dira aleak %90ean, baina, elikaduran ere bai: oso kantitate txikietan azukrea fabrikatzeko ere erabili daiteke. Gertatzen dena da kareharri hori Urkiolako parkeagaz dagoela

lotuta, ingurumenari dagokionez babestuta dauden tokiekin. Horretaz jabetu behar dugu, eta hor jarraitu gura badugu, errespetatu egin behar ditugu bizilagunak eta ingurumena. Oso arduratsuak izan behar dugu.

Iaz ere saria eman zizun Bizkaiko Harrobi Enpresen Elkarteak.

Bai, sektore txikia gara eta hori ezagutarazteko modua izan zen. Familia enpresak dira gehienak eta duela 25 urte hasitakoak hemen gaude. Familia txiki bat gara. Bizkaian 18 esplotazio gara.


Atzealdean egiten duzu orain lan. Zein da zure lana?

Bezeroari begirakoa, uneoro gaude harremanetan. Produktuen kalitatea zaintzen dut —aleena eta hormigoia— eta jarraipena egin. Obra amaitzean berme-ziurtagiriak ere egiten ditugu. Enpresatik kanpoko kontrola Teknaliak egiten du. I+G arloan ere bagabiltza lanean Teknaliagaz.

JAIAK!

OTXANDIO

2017ko UZTAILA



*Otxandioko Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez!*



OTXANDIOKO
UDALA



OTXANDIOKO JAIEN EGITARUA

Uztailak 15, zapatua GAZTE EGUNA

13:30 Trikipoteoa.

15:00 Gazte bazkaria.

18:00 Gazte ginkana.

20:30 Batukotx batukada taldea.

22:30 Errementarien omenez eraikitako eskulturaren inaugurazio ekitaldia.

23:00 Kontzertuak gaztetxean
The Van + Akabu + DJ

Uztailak 16, domeka HERRI KANTA EGUNA

12:00 Kantuzaleei harrera.

12:30 Otxandioko kaleak kantuz eta kantariz beteko dituzte.

15:00 Kantu bazkaria Paseolekuan.

18:00 Irabia jota eskolaren emanaldia herriko plazan.

Uztailak 17, astelehena

18:30 Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkartaratzea plazan, Giza Eskubideen Udal Batzordeak deiturik.

18:30 Ohiko Salve Regina abestuko da Oihandi abesbatzagaz batera.

19:00 Katalintxuren jaitsieragaz jaien hasiera. Korrika hasiera jaia posible egin duten herritarrek botako dute txupina.

19:05 Danborrada.

20:00 Eusko Labelen haragi pintxoak.

20:30 Erromeria Luhartz taldeagaz.

Uztailak 18, martitena SANTAMANA EGUNA

Eguerdian, jubilatuz guztien argazkia plazan.

12:30 Bandaren eta txistularien kalejira.

13:00 Herriko umeen pilota partiduak.

13:30 ETSITA antzerkia Artekalen.

17:30 Pilota partiduak Mañondon.

Olatz Arrizabalaga - Maite Ruiz
Leire Etxaniz - Nagore Martin

Asier Olaizola I - Ibon Urrejola
Ibai Jauregi - Iñaki Otxandorena

20:00 Urduri dantza taldearen erakustaldi berezia.

21:00 Berbena Lotxo musika taldeaz.

Uztailak 29, eguztena UMEEN EGUNA

10:30 Globo aerostatikoa Mañondon.

12:00 Umeentzako tailerrak plazan.

12:30 6. mailakoek eguneko txupina botako dute udaletxeko balkoitik.

Ondoren, Herriko trikitixa eta pandero ikasleak kalean zehar.

16:30 Haurrentzat puzgarriak plazan.

17:00 Tute, mus eta briska txapelketa.

19:00-20:30 Korrika hasierako argazki eta bideoen erakusketa Bolalekuan.

19:30 Disko festa plazan.

Uztailak 20, eguena

11:30 Umeentzako puzgarriak eta uretako jolasak herriko igerilekuan.

19:00-20:30 Korrika hasierako argazki eta bideoen erakusketa Bolalekuan.

Uztailak 21, barikua

18:30 Bizikleta saltoaren erakustaldia.

19:00-20:30 Korrika hasierako argazki eta bideoen erakusketa Bolalekuan.

20:00 Hartu hitza Otxandio. Galdeketa egunaren aurkezpena.

22:30 Play-backa plazan.

Uztailak 22, zapatua SAN MARTIN

12:00 Otxandioko bandaren kalejira eta ondoren dultzaineroen kalejira.

14:00 San Martinen paella-txapelketa.

19:30 Akelarre txaranga kalerik kale.

20:30 Nesken soka-dantza herriko plazan.

23:00 Kontzertuak herriko plazan.
Hutza + Lágrimas de sangre + Akerbeltz

Uztailak 23, domeka

07:30 Diana eta kalejira.

08:00 Sokamuturra.

13:00 Omenaldia 1936an bonbardaketan hildakoei, Andikonan.

13:45 Limonada plazan eta Araiako eta Otxandioko bandaren ikuskizuna.

18:00 Ingude jasotze txapelketa.

19:00 Aizkolari apustua Saul Velasco eta Luis Polancoaren artean.

20:30 Berbena Gauargi taldeagaz.

22:00 Bonbardaketari buruzko dokumentalaren aurkezpena Andikonan.

22:30 Gauargi taldearen emanaldia.

00:00 Agur Santa Marina.



ETXEBARRI
NEKAZALTURISMOA

945 450 123 • 676 947 523
OTXANDIO Olaetara bidean

danoena

JAIETAN EGUNERO
ogitartekoak
hanburgesak
plater konbinatuak
eta pizzak

Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

KOSKA

TABERNA

Tel.: 945 46 14 80
Plaza Nagusia, 6
OTXANDIO

LORA

TABERNA · OTXANDIO

Tel.: 677 568 580 / 945 450 159 - lorataberna@gmail.com



URREJOLA - OKINDECIJA

Jai zoriontsuak
opa deusueguz!

Artekale, 31
OTXANDIO
Tel.: 945 450 093



“Gogo ikaragarria zuten berba egiteko; begietan igartzen zitzairen emozioa”

Hiru ikaslek bonbardaketari buruz egindako dokumental saritua jaietan estreinatuko dute

> JAIK Joseba Derteano

Paul Arzanegi (1995) gernikarra da, eta bonbardaketen gaineko istorioak txikitatik entzun ditu. Irene Arini (Tolosa, 1995) bere senitarteko batzuen bidez sortu zitzaion gerra zibileko kontuei buruzko interesa. Eta Ana Alberdi (Mendaro, 1994) historiako libururen bat beti esku artean duen horietakoa da. Horregatik, Mondragon Unibertsitateko hiru ikasleek, graduondokolana Otxandioko bonbardaketagaz lotzeko aukera ikusi zutenean, ez zuten zalantzarik izan. “Proiektu honek geurea izan behar du, kosta ahala kosta” pentsatu zuten, Alberdiren esanetan. Interes eta dedikazio horrek errekonozimendua jaso du: Anbotogaz elkarlanean egindako lanagaz Mondragon Unibertsitateko Kimuberri saria irabazi dute.

Dokumentala santamaña jaietan erakutsiko dute. Uztairen 23an, 22:00etan, ikusi ahalko da Andikona Plazan.

Adituek bonbardaketa bere testuinguruan kokatzen eta hari logiko bat jarraitzen lagundiete. Marko horren barruan, bonbardaketa bizi izan zutenen testigantzek hartzen dute pisurik handiena, horiek jantzen dute kontakizuna. “Guretzat hunkigarria izan da eurekin aurrez aurre egotea. Berba egiteko, euren kontatzeko eta edozertan laguntzeko gogo ikaragarria zutela sentitu dugu. Begietan igartzen zitzairen emozio hori. Helduei gutxitan ematen zaie ahotsa, eta barruan dutena ateratzeko aukera eskaini izana oso pozgarria da guretzat”, azaldu du Alberdik. Zigor Olaberriaren liburuaren bidez bazekiten Otxandion gertatutakoa, baina



Irene Arin, Paul Arzanegi eta Ana Alberdi Kimuberri sariagaz.

“Barruan zutena ateratzeko aukera hori eskaini izana oso pozgarria da”

“Bonbardaketak duen garrantzia aitortzeko modua da dokumentala”

letrek ez dute ahoz kontatutako testigantza zuzenekin zerikusirik. “Beraiek sentitzen dutena sentitzea ezinezkoa da, baina sentimendu horietara hurreartzeko modua izan dugu. Nire amonak entzungo balitu, seguru nago eurekin identifikatuta sentituko litzatekeela”.

Duen garrantzia aitortuz Otxandioko bonbardaketa ez da Gernikakoa edo Durangokoa bezain ezaguna, baina gazteek

maila berean kokatzen dute. “Europar zibilen kontrako lehenengo bonbardaketa izan zen. Ez genekien horrela zela. Dokumentalaren bidez horrelako kontuak Euskal Herri osora zabaltzeko aukera izatea pozgarria da guretzat. Otxandioko bonbardaketak duen garrantzia aitortzeko modua da”.

Tematika berdineko beste dokumental bat edo dokumental sorta bat egitea asko gustatuko litzaikeela aitortu du.



Luis Polanco eta Saul Velasco kanaerdiko bost enbor ebakiko dituzte.

“600 euro daude jokoan, baina urguilua da inportanteena”

Luis Polanco eta Saul Velasco aizkora apustua dute, uztairen 23an

> APUSTUA J.D.

Jaien barruan aizkora apustu berezi bat egingo dute. Luis Polanco eta Saul Velasco otxandiarak kanaerdiko bost enbor nork arinago moztu arituko dira uztairen 23an, 19:00etan, herriko plazan.

Biak baserri munduko gizonak dira. Polanco gaztetasuna du alde. 33 urte gaz, Velasco baino 17 urte gazteagoa da. Baina sekula ez da egur gainean aizko-

ran ibili eta hutsetik ikasi behar izan du. Velasco, aldiz, badu horretan esperientzia. Gauzak horrela, nork irabaziko ditu jokoan dauden 600 euroak? Edozelan ere, “urguilua da inportanteena”, Polancoen berbetan.

Pike sanoak betidanik izan dituzte lagunartean. Inportanteena indarra den kasuetan, Polanco gehiago izan da: lagun baten zelaian fardoak jasotzen eta eraikitzen ari ziren etxe

bateko harria jasotzen, esaterako. Indar kontuetan, bai, baina teknika eskatzen duen probetan emaitza bestelakoa izango zela zioen Velasco. Horrela, behin aizkora apustu baterako iragarkia jarri zuen Polanco Danoena tabernan, eta Velasco onartu egin zuen. Baldintza bakarra jarri zuen gazteak: entrenatzeko, urtebeteko epea uzteko. Aurtengo santamañetan beteko da urtebete.



Ondo pasa
jaietan!!

NATURA · EUSKARA · KIROLA · PERTSONAK
Artekale 17, Otxandio 945 45 030 01
www.koikiliaterpetxea.eus



KOROSTONDO
janari denda



Artekale 19 OTXANDIO
Tel.: 945 45 00 94

Rosa Mari
Estankoa egunkariak
aldizkariak

Plaza Nagusia 9
Otxandio
Tel.: 945 45 00 33

Emakumeen soka-dantza berreskuratu dute Sabina Oianguren dantzariari esker

Gerra aurretik Otxandioko emakumeek dantzatzeko zuten aurrakua berreskuratuko du Urdurik



Sabina Oianguren soka-dantza irakasten, 80ko hamarkadan.

> PREGOIA Markel Onaindia Otxandioko Urduri dantza taldeak emakumeen soka-dantza berreskuratuko du aurten, jaietan plazaratzeko. Ainhoa Lasuen Urduri dantza taldeko kideak dioenez, “koreografia ez da inongo asmakizuna. Otxandioko andrekin utzitako ondare historikoaren berreskurapena da. Altxor bat”.

Santurtziko dantza talde bateko kide diren Mundi eta Andoni Flores anaiek 1980an Otxandioko folkloreaken inguruko ikerketa egin zuten. Lan horretan murgilduta zeudela konturatu ziren, Otxandion, behinola, emakumeek soka-dantza dantzatzeko zutela. Horrela, hainbat herritarren laguntzari esker dantza horren inguruko infor-

mazioa jaso zuten. Bide honekin, otxandiar baten ekarpenak garrantzitsuak izan zuten. Sabina Oianguren soka-dantza modu zaharrean dantzatu zuten azken belaunaldiko emakumeak izan ziren. Flores anaiek Oiangurenekin erakutsitako pausoak hartu zituzten oinarri moduan. Sasoi hartan Sabinak 80 urte inguru zituen, baina pausoak argi

gogoratzen zituen, eta irakasle aritu zen, bai santurtziarrekin, eta baita herriko beste dantzari batzuekin ere.

Errementarietako lotura

Ikerketen arabera, Otxandioko soka-dantza errementarietako lotura zuzena du. “Andrek ez zuten jaiak ospatzeko aukera handirik izaten, nahikoa baitzuten etxeko lanekin eta gonbidatuak atenditzen”, gogoratu du Urduri dantza taldeko kideak. Baina, jaietan laugarren egunean, uztailaren 22an, emakumeak kalera irteten ziren. Errementariak lanetik irteten zirenean, garbitokietara joaten ziren emakumeen bila. Garbitokietatik ibilbide bat egiten zuten, eta momentu horretan, emakumeek gizonei soka-dantza dantzatzeko zieten. Beste belaunaldi batzuetan, errementariak garbitokietara beharrean, elizaren irteerara joaten zirela jasota dago dokumentu historikoetan. Egundak honi sukaldariaren eguna esaten zaio, eta emakume dantzari hauei berriz, sukaldariak.

Ikasketa prozesua

“Santurtziko ikerlarietako harreran jarri ginen eta Gabonen aurretik ikasten hasi ginen”, dio Ainhoa. Musikan moldaketak egin dituzte eta jantzi egin dute.

Urduriko kideek diotenez, herriko emakumeek 1935ean dantzatu zuten soka-dantza azkenengoz. Izan ere, 1936ko uztailaren 22an bonbardaketak tra-

Bonbardaketak emakumeen soka-dantzaren tradizioa eten zuten

Soka-dantza errementarietako harreman zuzena du

dizioa eten zuten. Eraso faxistan hildakoak gogora ekarri guran, aurtengo jaietan, plazan beharrean, Andikonan egingo dute dantza. Garbitokian hasiko dira, eta handik Andikonarako bidea egingo dute. “Egun horretan bonbardaketaren ondorioz dantza egin ezin izan zuten emakumeen omenez egingo dugu dantza”, dio Lasuenek.

Errementarietako inguruko eskultura inauguratuko dute

Ikuskizunak suari erreferentzia egiten dioten osagaiak izango ditu

> ERREMENTARIAK J.G./J.D. Errementarietako Otxandioko jardura ekonomiko nagusietakoa osatu zuten XVI. eta XVII. mendeetan. Ofizio horrek herriarentzat izan zuen garrantzia gogoratzeko, errementarietako buruzko eskultura inauguratuko dute Santamaña jaietan. Horretarako, ekitaldi berezia prestatu dute uztailaren 15erako, 22:30ean. Antolatzaileek azaldu

dutenez, Bulkanoren eskulturatik pertsonaia ezagun hori interpretatuko duen aktorea plazara jaitsiko da alkateagaz akta sinatzera. 40 minutu inguru iraungo duen ikuskizunak suari erreferentzia egiten dioten osagaiak izango ditu.

Eskulturaren ezaugarriak Eskulturaren irudi nagusiak errementaria bera lanean is-

latzen du. Esku biek mailua buru gainetik jasota, ingudean jarrita dagoen pieza jotzeko prest ageri da. Beso, hanka, gorputz-enbor eta gainerako atalak kate baten katebegiak dira. Lau bat metroko garaiera izango du irudi horrek. Bere inguruan errementarietako euren ogibidean erabiltzen zituzten hainbat lan-tresna jarriko dituzte. Horietako batzuk benetakoak izango dira. Era berean, eskultura osatuko duten beste hainbat elementu (iltzeak, tenaza eta ferra, esaterako) udaletxeko biltegitik jaso dituzte. Eskultura oso-oso burdinezkoa da eta 12-14 tona inguru pisatu dezake. Ondoren, informazio panel bat gehituko diote.

Eskultura oso burdinezkoa da, eta 12-14 tona pisatzen du



Errementarietako inguruan aurretik Otxandion dagoen eskultura.

Eskultura Vicinay enpresak sortu du. Enpresa honek kateagintzaren arloan munduko hainbat lekutan diharduela eta Otxandion duela bere sorburua azaldu dute eskulturaren proiektuaren sustatzaileek.

“Otxandio errementari asko herria izana da, eta horren inguruan zer edo zer egin behar genuela esan genion elkarri”, gogoratu du ekimeneko sustatzaileetako den Jose Miguel

Gonzalez de Audikana otxandiarra. “Errementarietako Otxandion izan zuten garrantzia belaunaldi berriei erakusteko baliagarria izatea gura dugu”.

Eskulturaren irudi nagusiak errementaria bera lanean islatzen du



Tel.: 633 468 947
www.hontzaextrem.com

JAIIAK!

ZORNOTZA

2017ko UZTAILA



Jai zoriontsuak opa deutsueguz!



ZORNOTZAKO JAIEN EGITARAUA

Uztailak 15, zapatua

20:00 Pregoia, txupinazoa eta kalejira, Iruñeko Sanduzelai, Kanboko Zukila eta Amorebieta-Etxanoko erraldoi eta buruhandien konpartsak, gaitero eta txistulariak. Herriko plazan.

20:30 Kaleko antzerkia: **ANITA MARAVILLAS**. Sardina bakalau. Kalbarioan

21:30 KICK BOXING eta ARTE MARTZIALEN ERAKUSTALDIA. Ixerbekoa kiroldegian

23:00 Kontzertua. Zubiondo parkean
· ESNE BELTZA

24:00 Erromeria. Ixerbekoa.
· ZIRKINIK BEZ.

24:00 Alkoholemia karpa. Ixerbekoa

Uztailak 16, domeka

Goizean, Larrean **KARMENGO JAIA**. Meza, bertsolariak, UDABARRI dantza taldea, eta Euskal erromeria TRIKI PIU taldeagaz.

Ostean, Larreako landetan

11:00 HERRI KIROLAK. Herrian zehar.

UDAZKEN taldearen kalejira

12:00 ARKU-TIROA. Larrea eskolan

17:30 PILOTA PARTIDU PROFESIONALAK.
Altuna III - Rezusta
Irribarria - Zabaleta
Amorebieta IV frontoian

20:00 Antzerkia. CIA. TORNADO "Amigos con derecho a robo" Gernika plazan

22:00 Kontzertua. Zelaieta parkean
· GONTZAL MENDIBIL.

23:00 Kontzertua. Zubiondo plazan
· EN TOL SARMIENTO.

Uztailak 17, astelehena

16:00 UME ETA GAZTEENTZAKO UR JOLAS PARKEA. Nafarroan.

17:30 KOADRILEN ARTEKO GINKANA. Zubiondo plazan

17:30 NESKEN ARTEKO ESKU PILOTA ETA PALA I. TXAPELKETA. Finalerdiak. Amorebieta IV frontoian

21:00 Bertsolariak. Herriko plazan
· MAIALEN LUJANBIO
· XABAT GALLETEBEITIA
· JON MAIA
· JONE URIA

Uztailak 18, martitzena

21:00 Dantza. KUKAI "Topa". Gernika plazan

Uztailak 19, eguaztena

17:00 PALA PARTIDUAK. Herriko Txapelketako finalerdiak. Amorebieta IV Frontoian

19:30 KOADRILEN ARTEKO PLAY BACK LEHIAKETA. Ixerbekoa

22:00 Nazioarteko dantzak. Herriko plazan
· Conjunto Folklórico TUNGURAHUA (Ecuador)

Uztailak 20, eguena

18:00 UMEEN DANBORRADA

20:00 Ume eta gazteentzako ikuskizuna. Zelaieta parkean
· GO!AZEN. Glu Glu producciones.

22:00 Kontzertua. Zubiondo plazan
· LA FAMILIA ATLÁNTICA.

Uztailak 21, barikua

13:00 KOADRILEN KALEJIRA Kalbario plazatik

15:00 BERTSO BAZKARIA ANDER ELORTEGI, MIREN AMURIZA. Ixerbekoa

17:00 ALDI BEREKO 50 XAKE PARTIDA. Zelaieta parkean

18:00 TXARANGAZO ELEKTROTXARANGA. Luis Urrengoetxea kalea

18:00 BIZIKLETA EGUNA. Zubiondo parkean.

22:00 DANBORRADA

23:00 Kontzertua. Zubiondo plazan
· SETENTA Y UNO
· CALUM

24:00 Erromeria. Ixerbekoa
· GARILAK 26

Uztailak 22, zapatua

Goizean. Zubiondo parkean **MARMITAKO LEHIAKETA** Amantala eskuetan gaixotasun arraroekin

09:00 XCIII. USAKUME TIROKETA OFIZIALA. Boroa poligonoan

11:00 UMEENTZAKO BOLO TXAPELKETA. Gure Kirolak bolatokia

17:00 XXXVI. XAKE TXAPELKETA Agustín Zamakona Memoriala. Urbano Larruzea kalean.

18:00 ZORNOTZAKO III. MASTER KAIOLA Finalak. Amorebieta IV frontoian.

21:00 KARMENETAKO VII. BOLO TXAPELKETA. Gure Kirolak bolatokia.

22:00 Kontzertua. Ixerbekoa
· BELATZ
· TXAPELPUNK
· ITZIARREN SEMEAK

23:00 Kanp berbena. Zubiondo plazan.
· LONDON ORKESTRA

Uztailak 23, domeka

09:00 XCIII. USAKUME TIROKETA herrikoia. Boroa poligonoan.

11:00 ONTZI-MODELISMOAREN ERAKUSTALDIA. Jauregibarrian.

11:00 AMOREBIETA-ETXANOKO VI. MILIA ETA JAI LASTERKETA Zubiondo parkean.

17:00 EUSKAL HERRIKO NESKEN GOMAZKO PALETA ZIRKUITUA 1. jardunaldia. Amorebieta IV frontoian

18:00 KARMENETAKO X. ESKU-PILOTA TXAPELKETA Federatuen finalak. Amorebieta IV frontoian.

21:30 Disko festa. Nafarroan
· OIHAN VEGA

22:00 Kontzertua. Zubiondo parkean
· PURO RELAJO

Uztailak 24, astelehena

18:00 KOADRILEN ARTEKO PIRAGUA JAITSIERA Ibaizabal errekan

18:00 PALA PARTIDUAK. Herriko Txapelketako finalak Amorebieta IV Frontoian.

21:00 TXISTULARIEN XVIII. KONTZERTUA
Artista gonbidatua: Niko Etxart
Zelaieta parkean.

23:00 Kontzertua. Ixerbekoa
· VENDETTA
· BATEK DAKI

23:00 Kontzertua. Zubiondo parkean
· LA ORQUESTA MONDRAGON

Uztailak 25, martitzena

Goizean, Zelaieta parkean **BASERRITARREN AZOKA**

Egun guztian
AITITE-AMAMEN JAIA: meza, aurraskua, erromeria...
Izena emateko: Nafarroa zentroa

10:00 TXIRRINDULARITZA Junior mailako Euskal Herria txapelketa. Irteera eta helmuga: Nafarroa kalea

11:30 NESKEN ARTEKO ESKU PILOTA ETA PALA I. TXAPELKETA Finalak. Amorebieta IV frontoian

12:00 EUSKAL HERRIKO NESKEN GOMAZKO PALETA ZIRKUITUA 2. jardunaldia. Amorebieta IV frontoia.

18:00 KARMENETAKO X. ESKU PILOTA TXAPELKETA Eskolartekoen finalak. Amorebieta IV frontoian.

18:00 KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROLAK Zelaieta parkean.

18:30 SDA TALDEAREN AURKEZPEN-PARTIDUA VI. Amorebieta-Etxanoko Udala Saria. Urritxe Futbol Zelaietan.

22:30 SU ARTIFIZIALAK Piroteknia Astondoa. Jauregibarrian.

23:00 Disko festa. Zubiondo plazan
· CARLOS JEAN

Uztailak 26, eguaztena

11:30 UME ETA GAZTEENTZAKO JOLAS PARKEA. Zelaieta parkean
· UMEENTZAKO TAILERRAK

19:00 Umeentzako Disko festa. Zelaieta parkean.
· 3TXULO kale ikuskizuna.

22:00 Dokumentala Txirrindularitzaren historia Amorebieta-Etxanon. Herriko plazan

Uztailak 27, eguena

MOZORRO EGUNA: MEXIKO!


19:30 Kaleko musika
· MARIACHI IMPERIAL
Euskal Herria plaza - Kalbario - Zezilia Gallartzagaitia

21:30 Kaleko musika. Andra Mari plazan
· THE BUSQUITOS

22:30 Kontzertua. Zubiondo plaza
· MARIACHI IMPERIAL.
· ELEGANCIA MEXICANA.



ekin S. Coop.
Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)
48340 AMOREBIETA
www.ekin.es



Eneko Atxak jaurtitako txupinazoak abiatuko ditu Zornotzako Karmengo jaiak

Kultur zein kirol ekitaldiz beteta dator jaietarako prestatutako egitaraua, uztailearen 15etik 27ra bitartean



Luziano Martinez Ametx erakundeko presidentea, Eneko Atxa sukaldaria eta Andoni Agirrebeitia alkatea, eguazteneko jaien aurkezpenean.

> JAIK Jone Guenetxea Ekitaldi herrikoiz beteta datoz aurtan ere Zornotzako Karmenak. Uztailearen 15etik 27ra bitartean, jai-giroa izango da nagusi Zornotzan. Jaiet hasiera emateko, herriko enbaxadorerik ezagunena aukeratu dute aurtan. Azurmendi jatetxeko Eneko Atxa sukaldaria, hain zuzen. Jaien aurkezpenean Andoni Agirrebeitia alkatea azaldu duenez, "ohorea" da Atxa txupinero izatea. Alkatearen esanetan, Enekok euskaldunen ezaugarriak islatzen ditu, "kemena, ilusioa, lana...". Sukaldari zornotzarra ere pozik agertu da jaietan hartuko duen arduragaz. Txupinazoa uztailearen 15ean izango da, 20:00etan, herriko plazan.

Kultur proposamen oparoa bildu dute aurtan jaien egitarauan. Musika kontzertuez gainera, beste hainbat kale ikuskizun izango dira. Prentsaurrekoan Luziano Martinez Ametx erakundeko presidentek Kukai dantza taldearen *Topa* ikuski-

zuna nabarmendu du. Dantza talderik onenaren Max saria jaso eta gero, Kukaikoak Zornotzara etorriko dira. Horrez gain, kale ikuskizunek ere jai-giroa

piztuko dute. Cia Tornado taldeak *Amigos con derecho a robo* antzezlan eskainiko du, uztailearen 16an. Era berean, ume zein gazteek *Goazen* telesail ezagune-

ko abestiak dantzatu eta abesteko aukera izango dute aktoreen laguntzagaz, uztailearen 20an, 20:00etan, Zelaieta parkean. Txistularien XVIII. kontzertua-

ri dagokionez, aurtan artista gonbidatua Niko Etxart izango da. Uztailearen 24an jarri dute hitzordua, Zelaieta parkean.

Kirol ekitaldiak

Kirol ekitaldiak jaietako osagai garrantzitsua izaten dira Zornotzan. III. Master Kaiolan, joan zen asteburuan final-laurdenetara sailkatzea lortu zuten Agirreamalloak eta Aizkorbek

Kukai dantza taldeak 'Topa' ikuskizuna taularatuko du

gazte mailan, eta Irazustabarrenak eta Mugirok 22 urtez azpikoetan. Finalerdietara sailkatu dira Zubizarreta 22 urtez azpikoetan eta Sein gazte mailan. Bestalde, aurtan, pilota partidu profesionalez gozatzeko aukera izango da Amorebieta IV. frontoian. Altuna III- Rezusta eta Irribarria-Zabaleta bikoteek neurtuko dituzte indarrak uztailearen 16an. Bestalde, nesken arteko esku pilota eta pala txapelketa antolatuko dute aurtan, lehenengoz, uztailearen 17rako. Euskal Herriko Nesken gomazko paleta zirkuituko txapelketa ere jokatu dute Zornotzan.

“Jaiak parte inportantea dira nire oroitzapenetan”

Atxak prestatu du pregoian esango duena



Eneko Atxa eguaztenean, jaien aurkezpenean, udaletxeko balkoian.

Txupinazoa botatzea ardura handia da Zornotzan.

Niretzat ohore bat da, bertan jaiotakoa eta bertan hazitakoa naizelako. Gainera, jaiak parte inportante bat dira nire oroitzapenen barruan, eta datozenentzat ere hala izango dira.

Zein da jaietan gogokoen duzun ekitaldia? Astirik bai?

Agendan beti gordetzen dut tarte bat jaietarako. Bizitza profesionala garrantzitsua da, baina pertsonala eta familiarra ere bai. Txupinazoaren egunean denok pil-pilean egoten gara. Gero, egun bakoitzak bere magia dauka. Martitzen buruzuri batean kontzertu edo dantza ikuskizun eder bat ikusteak baliteke beste ezerk

baino gehiago hunkitzea. Santanatu eguna ere oso berezia da. Niri astean zehar izatea ere ez zait inporta, herriko jendea batzen garelako. Kanpokoak ere etor daitezela, jakina. Baina polita da egun batean bertako jendeagaz biltzea. Marmitako eguna ere ez dut galtzen.

Pentsatu duzu pregoian zer esango duzun?

Laburra izango naiz. Nire herriari eskerrak emango dizkiot. Bestalde, azpimarratu gura nuke jaietako eta gainerako egunetan ere errespetuz jokatzeko. Jaietan irten naizen bakoitzean helburua ondo pasatzea eta alboan ditudanak errespetatzea izan da. Ez dago ondo pasatzeko beste modurik.

consulta HAR
MANU ACEVEDO
Fisioterapeuta eta osteopata

Jarri zure osasuna profesionalen esku

FISIOTERAPIA
MASAJEAK - ESKU-TERAPIA - SENDATZE FUNTZIONALA - ELEKTROTERRAPIA

OSTEOPATIA
ESTRUKTURALA - ERRAIETAKOAK - BUREZURREKOAK

E.P.T.E. ELEKTROLISIA KONTROL EKOGRAFIKOAREKIN

R.P.S. 65/12


Konbenio, 6 behea 48340 AMOREBIETA Tel.: 946 300 713
www.consultagihar.com

ASTE BITARTEKO MENUA, ASTEBURUKO MENUA, MENU BEREZIA ETA KARTA

kanbio Jatetxea

Ondo pasa jaietan!

San Migel Dudea auzoa | AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 033



Mendibilek kontzertua emango du, uztailaren 16an, Zornotzan.



Esnebeltzak trikitixa eta doinu elektronikoak uztartuko ditu, uztailaren 15ean.

Gontzal Mendibil, Esnebeltza eta Vendettaren kontzertuek girotuko dituzte Karmen jaiak

Esnebeltzak irekiko du kontzertuen egitaraua, uztailaren 15ean

> MUSIKA Jone Guenetxea Estilo askotako musika proposamena dakar, aurten, Zornotzako Karmen jaietako egitarauak. Trikitixa, euskal musika tradizionala, ska, punk eta rockagaz zein beste hainbat doinugaz gozatzeko aukera izango da hurrengo egunetan Zornotzako jaietan. Xabi Solanoren Esnebeltza taldeak zabalduko du egitaraua, uztailaren 15ean, 23:00etan, Zubiondo parkean.

Hurrengo kontzertuko protagonista Gontzal Mendibil izango da, uztailaren 16an. *Nire bihotzak zure begiak ditu* azken diskoko abestiekin bertaratuko da zeanuritarra Zornotzako jaietara. Mendibilen zaleek Zelaieta parkean izango dute hitzordua.

Uztailaren 22an, berriz, hiru talde igoko dira taula gainera. Belatz, Txapelpunk eta Itziarren Semeak. Ixerbekoan

Mozorroen gaia Mexiko izanda, mariachi musika nonhai izango da

Batek Daki taldeak gatza eta piperra jarriko dio 24ko gauari

emango dute kontzertua, 22:00etan.

Rancheren txanda

Puro Relajo talde nafarrak ranchera donuekin dantzan jarriko ditu zale guztiak. Ekainean Axpen (Atxondo) kontzertua eman ondoren, uztailaren 23an Zornotzan igoko dira taula gainera, 22:00etan, Zubiondo parkean. Hau ez da nafarren musikaz gozatzeko eskualdean izango den azken aukera. Izan ere, abuztuaren hasieran Abadiñoko Gerediaga auzoan arituko dira.

Uztailaren 27an mozerro eguneko gaia Mexiko izanik, mariachien musika nonhai izango da. Mariachi Imperial eta Busquitos taldeek Mexikoko musika tradizionalagaz kaleak

girotuko dituzte arratsaldean. Gauean, Mariachi Imperial taldeak kontzertua emango du.

Zornotzako musika eskaintzako beste kartelburuetako bat Vendetta talde nafarra da. Ekainean Suitzan eta Alemanian bira egin ostean, jaiak alaitzera etorriko dira ska, rock eta punk doinuak uztartuz, uztailaren 24an, Ixerbekoan. Ondoren, herriko Batek Daki erromeria taldeak gatza eta piperra jarriko dio gauari.

La Orquesta Mondragon taldeak ere bisitatuko du Zornotza, uztailaren 24an. Javier Gurrutxagaren taldea Zubiondo parkean izango da, 23:00etan.

Bestalde, Dance musikaren zaleek Carlos Jeanen disko festaz gozatzeko aukera izango dute, uztailaren 25ean, Zubiondon.

Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Ortuzar, 1 Izurtza (Bizkaia) Tel.: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

IZAR CUTTING TOOLS

Ondo pasa Jaietan!

izartool.com

Z@S informatika

ORDENADOREAK
OSAGARRIAK
KONPONKETAK
MANTENIMENDUA

ENPRESETARAKO ZERBITZUA

Tel.: 94 630 12 12
info@zasinformatika.com
Gregorio Mendibil 9 behea
[Amorebieta-Etxano]

ALBERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

UXARTE SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZE HAR
ENKARGUZ

Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

Marmitakoa, zornotzarren jaiak gozaten dituen txapelketa

Zubiondo parkearen inguruan egingo dute lehiaketa, uztailaren 22an

> JAIK! Maialen Zuazubiskar Uztailaren 22an herritarren jaiak gozaten dituen eta hegaluzea eguneko osagai protagonista den Marmitako Txapelketa egingo dute Zornotzan. Iaz, 3.744 herritar batu zituen.

Txapelketan parte hartu gura duenak izen-ematea aurrez egin beharko duela jakitera eman dute antolatzaileek. Herriko edozein kuadrillak parte hartu dezake lehiaketan, eta aurreko astetik uztailaren 14ra egin daiteke izen-ematea Ametxeko Gazte Informazio Bulegoan.

Marmitako Txapelketan izena ematerako orduan, parte-hartzaileek hiru kategoriren artean aukeratu beharko dutela jakitera eman dute lehiaketako antolatzaileek. Ondoren, kategorian hauen arabera egingo dute leku, mahai eta aulkien banaketa. A taldean kuadrilla txikiak egongo dira, B taldean kuadrilla handiak, eta C taldea Challangean parte hartzen duten herritar taldeek osatuko dute.

Challengea

Challengea hainbat probaz osatutako lehiaketa da. Zornotzako kuadrillek hainbat proba egin behar izaten dituzte jaietan zehar, eta horietako bat Marmitako lehiaketa izaten da.

Uztailaren 14ra arte eman daiteke izena Marmitako Txapelketan

Challengeko parte-hartzaileek hainbat proba egingo dituzte

Txapelketa hau Challengeko ekintza lez sortu, eta egun hainbat herritarrek parte hartzen duten lehiaketa bihurtu da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hainbat probek (piragua, herri kirolak...) osatzen

duten lehiaketan parte hartzen duten herritarrei hegaluzea, mahai-tresneria eta ogia eman go dizkiete. Horrez gain, hauek beste sailkapen bat izango dutela jakitera eman dute Marmitako Txapelketako antolatzaileek, Challengeko irabazleei, diruaz gain, sailkapen nagusirako puntuak ere banatuko baitzaizkie.

Herri osoan zabaldua

Zubiondo parkearen inguruan egiten hasi ziren lehiaketa herri osoa zabaldua dago gaur egun. Oraindik ere, lehiaketaren erdigunea Zubiondo parkearen inguruan dagoen arren, herriko beste hainbat kaletara zabaldu behar izan dute txapelketa.

Hori horrela, uztailaren 22an, Marmitako usaina eta jai-giroa izango dira nagusi Herriko plazan, Zelaieta Parkean eta San Juan kalean, besteak beste.

Sari banaketarako, parte-hartzaile guztiak Zubiondo parkean batu beharko direla adierazi dute antolatzaileek.



Jai-giroa izaten da nagusi Marmitako egunean.



Herri guztian zabaldua egoten da lehiaketa.



Clase A AMG Style. Eraman ezazu dena barne.

Lan egin behar denean, dena ematen duzu. Hori dela eta, Clase A laguna duzu uneoro topera bizitzeko. Orain, Mercedes-Benz Complete-ri esker, Clase A 200 d AMG Style zurea da, hilean 250 €ren truke*. 4 urtean zehar hileroko kuota finkoa, arrisku orotako aseguru, bermea eta mantentze-lanak barne**.

Gozatu dena barne daukan estilo handiko kirol konpaktu hau.

Clase A 200 d AMG Style, hilean 250 €ren truke*:

- Aseguru, mantentze eta bermea
- Smartphone paketea integratuta
- 7GDCT aldaketa automatikoa
- Argiztapen-sistema eta bidegarritasun paketea
- DYNAMIC SELECT
- AMG kanpokoi
- AMG 45.7zm (18")-ko aleaziozko hagunak
- Atzera-martxoako kamera

Batez besteko kontsumoa 4.0 (l/100km) eta CO₂-a isurtzea 103 (g/km).

*Clase A 200 d AMG Style-rako Mercedes-Benz Complete-ko finantzaketa-aldibidea: hilean 250 €ren truke BEZa barne, hasierako zenbatekoa 8.879,63 € BEZa barne, zabalte-komisiorik gabe, 48 kuotatan eta urtean 20.000 km. ** Balioak: 31 urte baino gehiagoko batenak, 2017/09/30era arte onartutako eskariak eta kontratua indarrean 2017/11/30era arte. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Renting S.A.-k (Bruselas etorbidea, 30-28100 Alcobendas-Madri) komertzializatutako marka da. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. ** Piezen higadura barne, pneumatikoak ezik.

Gidatu



AGUINAGA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es | www.aguinaga.es

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

“Zornotzako jaiak txikitatik bizi ditut; beraz, ohorea da Karmenak iragartzeko kartela sortzea”

Jaietako elementuekin osatutako kartela sortu du Mikel Berrojalbiz artista zornotzarrak bere herriko jaiak islatzeko

> KARTELA Jone Guenetxea

Mikel Berrojalbizek sortu du 2017ko Zornotzako Karmen jaietako kartela. Arte Ederrak ikasi eta gero, zornotzarrak akademia zabaldu zuen herrian. Ikasleek “ilusioz” hartu dute maisua herriko jaietako protagonistetako bat izatea. Gainerako pertsonaiak kartelean jaso ditu egileak. Danborradako zuzendariak, txupinazoaren momentuko kolore ez-tandak, mariachi mexikarrek eta beste hainbat osagaik bat egiten dute kartelean. Herriko jaiak barru-barrutik ezagutzen dituela nabari da.

Zelan hartu zenuen jaietako kartela egiteko enkargua? laz bigarren gelditu zinen lehiaketan, irabazlearengandik puntu gutxira.

Lan hau ilusio handiagaz hartu dut. Zornotzako jaiak txikitatik bizi ditut, eta beraz, Karmengo jaiak iragartzen dituen kartela sortzea ohorea da.

Kartelaren sormen prozesua zelakoa izan da?

Hiru asteko epea izan nuen kartela sortzeko; beraz, denbora gutxian egindakoa da. Orrialde zuri bat hartu, eta hortik zer edo zer atera behar nuen. Nik erreferentziak hartuta lan egiten dut. Argazkiak hartuta, erreferentzia horiekin eskuz margotzen hasi nintzen. Arkatza, papera eta borragoma hartu nituen, eta lanari ekin nion. Lan konplexua izan da, elementu asko sartu gura nituelako eta denak uztartzea ez zelako erraza izan. Gauza batzuk kanpoan utzi nituen, eta aukeratutakoak gehiago garatu nituen. Behin dena paperean izan nuenean, prozesu digitala hasi nuen, dena eskaneatu eta abar.

Aukeratu dituzun elementuak ikusita, argi dago jaiak barrutik



Mikel Berrojalbiz bere sormen lanagaz, kartelaren aurkezpenean.

ezagutzen dituzula. Zein elementu aukeratu dituzu?

Momentu klabe batek indar handia hartu du Zornotzako jaietan: txupinazoak. Momentu hori islatzeko, udaletxea marraztu dut, txupinazoa eta kartelaren lema. Konfeti eta globo urdinak ere agertzen dira. Plaza hori urdin bilakatzen da.

Eta aukeratu dituzun beste elementuak zeintzuk dira?

Danborrada beste elementuetako bat da, bere zuzendariak ordezkaturak. Zuzendari honek jaietako beste ekintza batzuetako ordezkariak zuzentzen ditu kartelean. Buruhandia ume batzuen atzetik, kanoa jaitsiera, pala txapelketak, boloak eta beste elementu txiki batzuk. Kartelaren xarma elementu horiek topatzea da. Detalle bat izan gura dut ontzi-modelismoaren erakustaldiagaz, eta ontzitxo bat dago

“Lan konplexua izan da, elementu asko sartu gura nituelako”

“Ondoen pasatzen dudana eguna marmitako txapelketakoa da”

errekan. Atzeko aldean, erreka eta kaleak ere agertzen dira.

Aurtengo egitarauko DJ bat jarri duzu kartelean. Informazio pribilegiatua izan duzu?

Carlos Jean DJa jarri dut, bai, banekielako jaietara etorriko zela. Apur bat espioi lana egin dut, bai (barrez).

Santanatxu eguna ere islatu duzu kartelean.

Bai, kartelaren erdialdean Santanatxu Eguna islatuta dago. Aurten Mexiko izango denez gaia, emakume mexikar bat dantza tradizionala dantzatzen eta mariachia agertzen dira.

Pintura akademia bat duzu. Zer diote zure ikasleek? Denak poz-pezik gaude. Hemen-txe dugu kartela, akademian jarrita. Gazteak ohituta daude nire marrazkietara, eta ilusioa egiten die herrian ikusteak.

Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuna?

Ondoen pasatzen dudana eguna marmitako txapelketakoa da. Egun horretan kaleak hartzen ditugu, eta oso ekitaldi herrikoia da. Herria geroz eta gehiago betetzen dugu. Ez dakit azkenean non amaituko dugun.

Jaiak egunez ala gauzez bizi dituzu?

Bietara, jakina. Orain, umeekin, ez da hain erraza gauzez irtetea, baina, modu batera edo bestera, gauzez ere irteten gara.

Ekitaldiren baten parte hartuko duzu?

Txikitik danborradan parte hartu nuen eta ez naiz berriro apuntatu, baina beste urteren batean ostera ere ekitea gura nuke.

Udalak jaien inguruko inkesta egin du. Zuk jaiak laburtuko zenuke?

Jaiak luzeak dira, bai, baina ez dakigu nondik moztu. Hortxe dugu arazoa. Dena gustatzen zaigu. Aste bitarteko egunen bat kentzea diote batzuek, baina hori ez da ezer, aste bitartean ez dago eta ekintza askorik. Konponbide zaila du kontu honek.



Ondo pasa jaietan!
ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



0-18 URTE
HAZI eta HEZI gurekin



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



ibaizabal
IKASTOLA



Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950
zornotza@ikastola.eus - www.zornotzaikastola.eus

Beñat Egiarte Ruiz | Opera abeslaria | Zornotza, 1983

“Bartzelonan, Madrilen edo Sevillan kantatut; ametsak gauzatzen nabil gutxinaka”

‘Carmina Durana’ operan parte hartuko du Egiartek, uztailaren 16an, Bartzelonako Palau de la Musican



Hamarkada bat darama Beñat Egiarte 33 urteko tenor zornotzarrak Bartzelonan bizitzen eta operan lan egiten.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Hainbat emanaldi eskainiko duzu uda honetan Katalunian eta Euskal Herrian. Ohikoa da udan hainbeste aritzea? Sasoi honetan ez da opera denboraldirik egoten, eta orain arte nahiko lasaiak izan dira nire udak. Aurten lanpetuago nabil, eta seinale ona da hori.

Bizkaian eskainiko dituzu udako emandalietako bi abuztuan. Ilusio handia egiten dit etxetik hain hurbil errezeitaldiak eskaintzeak, izan ere, ez dut Euskal Herrian aritzeko aukera askorik edukitzen. Arratzun eta Lekeitio arituko naiz abuztuko errezeitaldi horietan.

Umetatik daukazu kantarako zaletasuna?
Zornotzan, ikastolako abesbatza hasi nintzen 11 urte inguruz kantuan, eta Abeskimu abesbatza ibili nintzen gero. 17-18 urtegar, Euskal Herriko abesbatzen federazioak antolatzen zuen ikastaro batera joan nintzen, udan. Hango irakasleak esan zidan ahotsean banuela dohaina, eta horrek bultzatuta hasi nintzen gutxinaka mundu horretan gehiago barneratzen.

Bartzelonan sartu zinen operaren munduan?
Medikuntza ikasketak amaitu ostean joan nintzen Bartzelo-

lonara, duela 10 urte. 2010ean Sabadelleko opera lehiaketara aurkeztu nintzen, eta opera batean parte hartzeko aukera izan nuen lehenengoz. Hura izan zen nire debuta, *Così fan tutte* obra-

gaz. Hor hasi nintzen gutxinaka eskaintzak jasotzen; hura izan zen, zelanbait, nire tranpolina. Hortik lasterrera, 2013an, kantatu nuen lehenengoz Liceu antzokian eta Palau de la Musican.

Zure burua halako oholztetan ikustea amesten zenuen?
Bai. Bartzelonan, Madrilen edo Sevillan kantatu dut, besteak beste; nire ametsak gauzatzen nabil gutxinaka.

Sevillako Maestranza antzokian hainbat denboraldi egin dituzu.

Bai, lau urtez deitu didate han kantatzeko, eta gauza handia da hori. Espainiako denboraldirik garrantzitsuenetarikoa antolatzen dute Maestranza, eta lau aldiz nigan konfiantza izatea oso inportantea da. Esan dezaket hura dela momentu honetan nire etxe musikala.

Zelakoa izaten da Sevillan zaudeneko egunerokotasuna?

Entseuetan gabiltzanean, aurreko gauean jakiten dugu sarritan biharamunean zer lan egingo dugun. Entseguak ahal beste aurreikusten dituzten arren, opera produkzioetan egun batetik bestera asko aldatzen dira gauzak. Ezinezkoa da aurreikustea arazoak non sortuko diren, adibidez.

Egunero lantzen duzu ahotsa?

Bai, noski. Alde horretatik, beste kirolari batzuenaren antza dauka gure egunerokoak. Gure kasuan, laringea da momentu oro zaindu eta ahal beste entrenatzen dugun gorputzeko atala. Momentu batzuetan bigarren maila batean geratzen den arren, beti daukagu presente. Repertoristak izaten dira gure entrenatzaileak, eta gure medikuak dauzkagu.

“Nahiko argi eduki dut beti nire bokazioa kantatzea zela”

Medikuntza ikasi zuen, baina operako ibilbide profesionala osatu du



Duela hamar urtetik Katalunian bizi da Beñat Egiarte abeslari zornotzarra. Medikuntza ikasi zuen Euskal Herrian, eta 2007an ikasketak

amaitu zituenean, kantuan jardun gura zuela erabaki zuen. Kantu ikasketak egitera joan zen Kataluniara, “han harrobi handiagoga” eta emandaldiak

eskaintzeko aukera gehiago daudela uste zuelako. “Medikuntza hasi nuenetik nahiko argi neukan nire bokazioa kantatzea zela, baina oso gaztea

nintzen kantuan jardutea serio planteatzeko, eta horregatik ikasketak amaitu behar nituela pentsatu nuen”, kontatu du Egiarte zornotzarrak.

“Ez da lanbide erraza, eta gaur egungoa ez da arlo horretan jarduteko garai aiposea ere”, onartu du Egiartek, “baina, gutxinaka, joan dira aukerak sortzen”.

Etxean aritzeko gogoz

Operako edozein abeslariri bezala, berari ere Scalas, Royal Opera House edo Metropolitanen kantatzea gustatuko litzaiokeela dio Egiartek, baina “etxean” aritzeagaz ere amets egiten du. Oraindik ez da Bilbon edo Donostian aritu, eta espero du laster opera denboraldi horietan kantatzea.

Uztailaren 16an, Bartzelonako Palau de la Musican du Egiartek hurrengo hitzordua. *Carmina Durana* operan parte hartuko du. “Askotan abestu dut opera hori, ate asko zabaldu dizkit, eta gustura abesten dut”, dio zornotzarrak, “titulu fetitxea niretzat”.

Bilbao BBK Live jaialdian joko du Izaro mallabitarrak, gaur

‘Om’ diskoaren aurkezpen bira amaitzen dabil Izaro musikaria. “Zoragarria” izaten ari dela dio

> MUSIKA Itsaso Esteban Bilbao BBK Live musika jaialdiaren bigarren egunean, gaur, arituko da Izaro musikari mallabitarra, Kobetamendin. Jaialdiko Matusalem guneko oholtzara igotzen lehenengoa izango da kantautore mallabitarra; 18:15ean hasiko du bere emanaldia. Gauerditik aurrera, eszenatoki horretatik jardungo dira, esaterako, Coque Malla eta Los Punsetes. The Killers, Fleet Foxes edo Niña Coyote eta Chico Tornado taldeek ere joko dute, gaur, Kobetamendin, bertako musikazaleak eta herrialde askotatik etorritakoak Bilbon biltzen dituen jaialdian. Musika jaialdi horretan jotzeko “gogotsu eta urduri” daude bera eta bere taldekideak, Izarok adierazi duenez.

Ekainaren 16an Bilboko Santana 27 aretoan abiatu zuen Izarok *Om* diskoaren bira amaiera.

Ondarroan, Donostian, Tolosan eta Iruñean jo dute. “Gozatzen gabiltza bira amaieragaz”, dio musikariak, “azken kontzertuetako sarrera guztiak agortu dira alde aurretik, eta jendea oso gogotsu etorri da gugana; abesti guztiak kantatu dituzte, dantza, negar, barre egin dute... Zoragarria izaten ari da agurra”.

“Jendea oso gogotsu etorri da gugana, abesti guztiak kantatu dituzte, dantza, negar, barre egin dute...”

Gaurko BBK Live-ekoaren ostean, bestelakoa, baina era berean berezia, izango da Izarok eskainiko duen hurrengo kontzertua ere. Mallabiko jaietan, parkean joko du, abuztuaren 14an, 22:30ean. Bere herriko



Ekainean Ondarroan, Donostian, Tolosan eta Iruñean jo dute.

emanaldi horregaz emango du amaitutzat *Om*-en ibilbidea.

Irailean Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuen *Om* lehenengo diskoak ekarritakoagaz oso pozik dago Izaro. “Plazerra izan da gure publiko hain aberatsa deskubritzea”, azpimarratu du, “ezin da profila zehaztu: edozein adin, edozein genero, edozein janzkerako publikoa dugu”.

Oso eskertuta dago beragaz lanean dabilzan guzti. “Musikan, literaturan, antzerkian eta artean, oro har, ez dugu baldintza duinetan lan egiten eta, hala ere, borrokan jarraitzen dugu profesionalizazio duinerantz, beste mila lan txiki zein handigaz batera fakturak ordaintzen”, adierazi du. “Bejondeizuela denoi!”, diotse.

GEURE DURANGALDEA

ANTTON URIARTE SALTERAIN

Musikaria



Egin niri kasu

Ez udan maitemindu, maitete osteko mina mingotsegia omen da. Ez zaitez oportetan horren urrutira joan, ezezaguna dena arriskutsuegia ei da. Ez zaitez herrian geratu baina, mundura irekitzeak hezten gaitu eta. Ez oraindik bainurik hartu, jan eta hiru ordu pasa aurretik goizegi ez ote den. Ez askorik eman, bueltan akaso erdia ere ez duzu jasoko eta. Ez bizikletarik hartu, ea autoren batek harrapatuko zaituen. Ez halakorik, horrelakorik zein bestetakorik jan, osasunera ko kaltegarri omen dira guztiak. Ez kasurik egin izkina horretako eskale gizajoari, ezezagunari mesfidantza baino ez zaio zor eta. Ez halakorik jantzi, besteren begietara ezegokia omen da. Ez utzi artxibatu gabeko ezer, dokumentatu guztia, gurean ezer biziitzeak baino bizitakoa elkarbanatzeak balio baitu gehiago. Ez gaitzen erreka-ko uretan murgildu, ur zikinok gaixotuko ote gaituzten. Ez egin ametsik ahal dela, biharamunean errealtateak atsekabetuko ei zaitu. Ez ausartu, arriskuen amildegian ez jolasik egin, gurean galtzea kasik krimena egitea omen da. Ez utzi edulkoratu gabeko ezer, errealtate gordina garratzegia ei da. Ez zaitez sofatik altxatu, gainontzekoak azkura gehiegi ez ote digun eragingo. Eta ez jarri dudana esandako honetatik guztitik ezer, egin niri kasu, egidazu men, diotsudana egia ahalguztiduna da eta.

Eta berez independente eta askeago garen garaiotan, ez dakit, azken batean, jakitunago ez ote garen albokoak egin beharko lukeenaz norberari komeni zaionaz baino.

Enrike Renteria margo lehiaketa, domekan

Zornotzako lehiaketaren XX. edizioa egingo dute



Atzo aurkeztu zuten domekan egingo duten lehiaketa.

> ARTEA I. E.

Enrike Renteria herriko margolaria omentzeko egiten duten margo lehiaketaren XX. edizioa egingo dute, uztailaren 9an, Zornotzan. Aurreko urteetan bezala, bi modalitatetan emango dituzte sariak. *Zintzilik* lehiaketa egingo dute, batetik: jaiak amaitu arte herriko balkoietan ikusgai egongo diren artelanen lehiaketa da hori. Bestalde, aire zabaleko pintura lehiaketa egingo dute, domekan.

Aire zabaleko pintura lehiaketako parte-hartzaileek Zelaia zentroan zigilatuko dituzte oihalak, 9:00etatik 11:00etara, eta 16:00ak arteko tartea izango dute gura duten teknikak eta neurriak erabilia euren margolanak osatzeko. Zornotzako

herrigunean eta Etxanoko gunehistorikoan arituko dira beraien artelanak osatzen.

Zornotza Arte eta Kultura Elkarteak (SACZ) eta Ametx udal erakundeak izendaturiko hiru kritikaririk eta elkarteko bazkide batek osatuko dute aire zabaleko pintura lehiaketako epaimahaiak. Helduen kasuan, zazpi sari banatuko dituzte, eta margotzeko asto bat eta margo kutxa bat jasoko dute sari moduan 14 urtetik beherako irabazleek. *Zintzilik* lehiaketaren kasuan, lau dira epaimahaiak banatuko dituen sariak.

Domekan 18:00etan Zelaia zentroan egingo duten sari banaketa ekitaldian emango dituzte jakitera Enrike Renteria lehiaketako irabazleen izenak.

Uztailaren 8an, larunbata
20:00 Kurutzasantun
Músicas trashumantes
Carlos Herrero

Uztailaren 14a, ostirala
20:00 Erkurdin
Femmes
Hortzmuga Teatroa

Uztailaren 21a, ostirala
20:00 Musika eskolako parkea
Baldin Bada
Shakti Olaizola

durango
uda kalean bizi 2017

san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ANTZERKIA ZIRKOA MAGIA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

UZTAILAK 12 - 21:00etan
JUAN DE DIEGO
KONTZERTUA

UZTAILAK 19 - 21:00etan
ELKANO BROWNING CREAM
KONTZERTUA



GREMIOEN GIDA



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **UNAI
GARAY**

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



ZURGINTZA

leike aroztegia &
diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ATERPE ARBOTZAK

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



ITURGINTZA

ALDEKOA-OTALORA

ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 Ind. Arzubia - Pab. 13-14
IURRETA **ABADIÑO**
946 202 768 944 071 791

**Ubide**
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Durangoko Museoa eraberritzeko lanak egingo dituzte udan

Uztailaren 17an itxi egingo dute Museoa, eta 200.000 euroko obra egingo du Durangoko Udalak

> **ARTEA** I. E./J. G.

Arte eta Historia Museoko hainbat espazio handitu eta eraikinaren irisgarritasuna eta jasangarritasuna hobetzeko, 200.000 euroko aurrekontuko obrak egingo ditu Durangoko Udalak uda honetan. Uztailaren 16an amaituko da azken asteetan ikusgai egon den José Carlos Garayren erakusketa, eta 17an itxiko dute Museoa obrari ekiteko. Pilar Ríos alkateordeak aurreratu duenez, Museoko lanek “Benita Uribarrena parkea eraberritzeko martxan dauden lanekin bat egingo dute”.

Besteak beste, eskailerak eta komunak berrituko dituzte, argiteria hobetuko dute eta suteen kontrako babeserako instalazio bat ipiniko dute. Egingo duten obragaz, gainera, hainbat metro irabaziko ditu Museok —lehe-

nengo solairuan, esaterako, 90 metro erabilgarri gehiago izango dira. Bestalde, eraikinaren kanpoaldean ere egingo dituzte lanak: burdin-hesi batzuk aldatu eta beste batzuk kendu egingo dituzte, eta fatxada nagusiko sarrera ere berritu egingo dute.

Aitziber Irigoras alkateak azpimarratu du “Arte eta Historia Museoa Durangoko kultur-bizitzaren erdigune nagusietako bat” dela, eta “horregatik, udala bere esku dagoen guztia ari da egiten espazioa zabaltzeko, handitzeko eta, batez ere, herritarrengana hurbiltzeko”.

Martxotik ekainera ikusgai izan den *Picasso: Durangotik Guernicara* erakusketak lortu du Durangoko alkateak aipatzen duen herritarrenganako hurbilketa hori. Inoizko bisitari kopururik handiena erakarri-



Museoaren fatxada nagusiko sarrera eraberrituko dute, besteak beste.

du Durangoko Museora. 3.000 bisitaritik gora ez ezik, erakusketan parte hartu duten bildumazaleen hainbat dohaintza ere utzi ditu erakusketa horrek Durangon. Bildumazaleek Durangoko bombardaketari buruz diharduten 1937ko *Le Pèlerin*, *Diari de Reus* eta *Corriere della Sera* egunkariaren aleak eman dizkiote Museolari. Egunkari ale horiez gain, *Guernica* koadroa egiteko Pablo Picassok egindako zirriborroetako baten faksimil bat ere jaso du Museok dohaintzan. Bonbek hildako umea besoetan daukan amaren sufri-mendua erakusten du obrak.



Picassoren zirriborro baten faksimila jaso du Museok dohaintzan.

Europako antzerki jaialdietan arituko da Markeliñe, udan

Joan zen asteburuan, Costa Rican egon ziren ‘Carbón Club’ antzezlanagaz

> **ANTZERKIA** I. E.

Costa Ricako San José hiriko jaialdian abiatu zuen Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak uda honetako nazioarteko bira,

joan zen asteburuan. Hegoamerikako hitzordurik inportanteena den horretan *Carbón Club* obra aurkeztu zuen Zornotzako antzerki taldeak. Meategi ba-

teko istorioa da, kabaret giro batean bildurik aurkezten dutena. Adiskidetasunaz, bizitzeko ausardiaz, gerrez eta aldarrikapenez dihardute, eta meategie-



Meatzariari omenaldia egiten die Markeliñek ‘Carbón Club’ antzezlanagaz.

tan lanean bizia eman zutenei omenaldia egiten diote antzerki emanaldiagaz.

Ekain amaieran Costa Rican hasi zuten bide horrek Eslovenian izango du jarraipena, hila-bete honetan. *Andante* antzez-lana eskainiko dute Ljubliana hiriburuan. Handik, Poloniara joango dira, eta *Carbón Club* zein *Andante* aurkeztuko dituzte bertan. Euskadiko Kale Ikuskizunik onenaren saria jaso zuen *Andante* obrak 2015eko Leioako Umore Azokan. Uztailan, Danimarkako Eutopia jaialdian ere erakutsiko dute.

Etxetik hurrago ere arituko dira Markeliñekoak uda honetan. Gasteizen izango dira, esaterako

Etxetik hurrago ere arituko dira, bestalde, Markeliñe taldekoak uda honetan. Gasteizen, kasurako. Madrilen, Errioxan, eta Asturiasen ere eskainiko dituzte antzezlanak.

Emanaldiz beteriko agenda-gaz amaituko du Markeliñek, besteak beste, urte hasieran *Euria* antzezlanari ikuskizunik onenaren Feten saria ekarri dion ikasturtea.

Arte feminista bultzatzeko lehiaketa, abian

> **ARTEA** I. E.

EAEko beste zazpi emakume etxegaz batera antolatu du Durangoko Andraguneak *Artestura Feministak* lehiaketa artistikoa. Arte feminista bultzatu eta emakumeen etxeen balioak ezagutarazi gura dituzte ekimenagaz.

Bi sari banatuko ditu emakumeen etxe bakoitzak: 400 euroko sari nagusia eta 200 euroko aipamen berezia. Andragunean eskuratu daitezke lehiaketako oinarriak.

Lehiaketa amaitzen denean, ekimenean parte hartu duten emakumeen etxeetan izango da ikusgai *Artestura Feministak* erakusketa.

Durangoko Andraguneak EAEko beste zazpi emakume etxegaz batera antolatu du lehiaketa

Iaz, *Testurak* bertsolaritza saioa bultzatu zuten EAEko zortzi emakumeen etxe horiek elkarlanean.

Elorrioko Buskantzak Bigarren B Mailan jokatuko du eta babesle zein bazkide bila dabil proiektua sendotzeko

Ligan igoera lortutako Bilbok uko egin dio aukerari, eta bigarren tokian amaitu zuen Buskantzak baliatuko du

> ARETO-FUTBOLA J.Derteano
Elorrioko Buskantzak areto-futboleko Bigarren B Mailan jokatuko du datorren denboraldian. Lehenengo esperientzia izango dute maila horretan. Erronka ilusionanteari aurre egiteko, finantziario iturri egonkorra lortzeko lanean dabiltza arduradunak. Hainbat babeslegaz akordioa lotuta dute eta lehenengoz bazkideen figura sortu dute.

Bigarren B Mailan jokatzeak gastuak handitu egiten ditu, arlo bitan batez ere. Batetik, joan-etorriak luzeagoak dira (Kantabria, Aragoi...) eta askotan irten beharko dute EAetik. Bestetik, epailei ordaindu beharrekoa ere bikoiztu egiten da. Beraz, 30.000 euro inguruko aurrekontua beharko dutela kalkulatu dute, iazkoa baino heren bat handiagoa gutxi gorabehera.

Dagoeneko eman dute izena maila berrian. Lortzen duten finantziarioagaz hasiko dute denboraldia eta, beharrik balego, babesle berriak lortzeko lanean jarraituko dute. "Enpresa askoz berba egiten ari gara, eta batzuk lotu ditugu. Oraindik lan asko falta da egiteko, baina kontua bide onetik doala uste dugu", dio Iker Saenz de la Cuesta zuzendaritzako kide eta taldeko entrenatzaileak. Parra tabernak, esaterako, urteetan eman



Aurtengo taldeari eutsiko diote, jokalaririk batzuk ere igoko dituzte. Elorrioko Buskantza

duen laguntzagaz jarraituko du, eta taldearen izena Elorrioko Parra Taberna izango da.

Aurrekontu osoa ezingo dute estali babesleekin, eta, horregatik, bazkideen figura sortu dute. "Oraingoz ehun eta piku bazkide ditugu eta 300 ingurura

heldu gura dugu. Horrela, gure aurrekontuko atal garrantzitsua izango da", azaldu du. Abonu individuala 15 eurokoa da eta familiarikoa 30ekoa (partiduko familiarikoa bat). Interesatuak elorriokofke@gmail.com helbidearen zein klubeko sare sozialen

bidez jarri daitezke hartu-emanetan abonua egiteko.

Abentura berria

Hainbat urtez Sasikoa Durango eta Mallabiagaz batera Hirugarren mailan aritu ostean, datorren denboraldian eskualdeko

areto-futboleko erreferente gorenari bihurtuko da Buskantza. Ligan bigarren amaitu zuten, Bilboren atzetik. Bilbok lortu zuten igotzeko eskubidea, baina uko egin dio arlo ekonomikogatik, eta Buskantzak aukera baliatzea erabaki du.

Jokalariei salto eman ala ez galdetu zietenean, "ia denek" baiezkota erantzun zuten. "Salto handia da, eta badakigu ez dela erraza izango. Irabaztera ohituta daude, eta orain ez irabaztea izango da normalena. Baina ilusioz beteta gaude".

Taldea ia itxita dute. Blokeari eutsiko diote, jokalaririk gutxi batzuk batuta: Esaterako, Yelko Uribe eta Carlos Martin eraman dituzte Presion Break-etik. Bigarren taldeetik Unai Arregi elorriarra igoko dute eta behar bada besteren bat.

Taldearentzat ez ezik Iker Saenz de la Cuestaarentzat berarentzat ere abentura berria izango da. "Alde batetik, ilusio handia dut. Sekula ez naiz kategoria horretan aritu eta erronka bat da. Baina, bestetik, entrenatzaile ez ezik zuzendaritzako kidea ere banaiz, eta ez da erraza biak bateratzea. Oraindik ezin izan diot minutu bat ere eskaini kirol arloari, beste arlo batzuetan lan pilo bat egariz ibili garelako".

Lasterketa herrikoia elkartasun keinuekin jantziko dute Zornotzan

Sahararren aldekoa izango da antolatuko duten probetako bat



Nagusien probaz gainera, adin tarteka banatutako beste hainbat ere izango dira.

> KORRIKA

J. D.
Zornotzako Korrikalariak taldeak aurtengo lasterketa herrikoia antolatuko du uztailearen 23an, Karmen jaien barruan. Izen-ematea doakoa izango da, lehiaren aurretik parte hartzea eta jai-giroa lehenesten dituztelako.

Zortzi kilometroko lasterketa Zubiondo parkean hasiko da. 16 urtetik gorakoak 11:00etan abiatuko dira. Handik beherakoak adinka banatuta eta distantzia desberdinetan arituko dira, 12:00etan hasita. 7 eta 15 urte artekoentzako errelebo proba bat ere prestatu dute.

Lasterketa nagusian aurrez izena emateko azken eguna uztailearen 21a da ondoko webgunean: www.sportmaniacs.com. Plaza mugatuak daude: 200. Gainontzeko mailetan izena emateko, zornotzakokorrikalariak@gmail.com helbidera idatzi daitezke. 50 dortsal gorde dituzte mailako. Proba denetan egunean bertan ere badago apuntatzeko aukera. Partaide denentzat opariak egongo dira.

Proba berezia

12:40an hasiko den lasterketa berezia izango da. Aurreko aldietan legez, sahararren aldekoa izango da eta jatorri horretako hainbat gazte parte hartuko dute. Baina 800 metroko proba horretarako izen-ematea herri-tar denei irekita dago eta, besteen antzera, doakoa izango da. Norgroup taldearen laguntzari esker antolatuko dute.

Emakumeen Bira UCIren egutegian sartu dute

> TXIRRINDULARITZA

J. D.
UCI Women World Tour-aren (WWT) datorren urterako egutegia jakitera eman du. Aurten sartu ez dituzten hiru lasterketa datorren urterako aurreikusi dituzte. Lasterketa horietako bat XXXI. Emakumeen Bira da, maiatzaren 19tik 22ra.

Antolatzaileek pozik hartu dute albistea. WWCa sortu zenetik UCIRi behin eta berriro eskatu diote Bira bertan sartzeko, baina arrakasta barik. Ondorioz, probaren maila jaitsi egin da azken aldietan. 2018an izar denak itzultzea itxaroten dute.

“Semeak helmugan zain izango ditudanaren pentsamendu eta ilusioagaz ibiltzen naiz korrika”

Txakurrak ditu entrenatzaile, familia ilusio, sekula ez du atzera begiratzen eta goi mailako denboraldia darama han eta hemen garaipenak pilatzen

> KIROLA Joseba Derteano
Basoan txakurrekin entrenatzen edo semeei eskutik helduta helmuga zeharkatzen. Oihana Azkorbebeitia-ri zorientasuna ematen dioten uneak dira eta, gaur egun, hori bilatzen du mendi lasterketen munduan. Baina atzera sekula begiratzen ez duen korrikalari lehiakorra ere bada, eta denboraldi bikaina darama, bederatzigarai garaipen lortuta.

Txapela kentzeko moduko denboraldia daramazu. Egia esan, espero baino askoz hobeto nabil. Urtea hasi denetik apurka gorantz joan naiz, eta garaipenak heldu dira.

Zegama-Aizkorri laugarren postu itzel bat lortu zenuen. Beste mendi lasterketa batean lehenengo geratzeak baino balio handiagoa du?

Bai, askoz handiagoa. Ez da lortutako postua edo egindako denbora bakarrik, baizik nortzuk geratu ziren nire atzetik. Neure burua konbentzitzeko balio izan zidan. Aurretik pentsatu nezakeen Euskal Herriko lasterketak aurkari faltagatik irabazten nituela, Maria Zorroza salbu, baina Zegama-Aizkorri munduko kopako proba da eta nire atzetik geratutako bi behintzat, Megan Kimmel eta Emelie Forsberg, punta-puntan dabilta.

Euskal Herriko gazteak ez dabilta fin, ala?

Ez dabil neska askorik lasterketetan. Maila paretsuan gailtzen hiru-lau gaude, Maitte Maiora eta Oihana Kortazar mailatxo bat gorago, baina atzetik ez da etorri ordezkaturiko gaituen belaunaldi gazterik. Maria Zorroza berria da, orain hiru bat urte hasi zen mendiko lasterketetan, baina gainerakoak lehengoak gara.

Kantitatea da batez ere falta dena?

Ez dakit ba! Kantitatea zein kalitatea, bietarik apur bat falta dela esango nuke. Ondo legoke neska gehiago hastea, baina, jakina, mundu honetan sartzen zarenean, asko ibili behar zara, gogor entrenatu behar duzu...

Asteburuan Lleidan, hilaren 22an Italiako Dolomitetan eta ostean Andorran. Uztailean munduko kopako hiru proba dituzu. Zer itxaropenekin aurre egingo diezu?

Ez dakit zer itxaron. Lasterketa hauek beste mundu bat dira. Proba luzeak, hiru mila metroko mendiekin... Galdera ikur bat dira.

Baina barruak zer diotsu?

Tira, euskal selekzioko kideek aurretik lortutako emaitza onak ikusita eta zein mailatan dabilta jakinda, lehenengo seietan sartuko banintz poztarren egongo nintzateke.

Aurtengo munduko kopa zure ibilbideko onena izan daitekeela sentitzen duzu?

Baliteke, baina faktore asko daude. Proba denetara —hamai-ka probatetik bostean parte hartuko dut— familia osoa joango gara, ume biek. Ez zara lasterketan bakarrik zentratzen. Galdetu izan diot neure buruari: “Ehuneko ehuneko zentratuko banintz, non nengoke?”. Baina, egia esan, ez dut horrelakorik gura. Beraz, posible da nire munduko koparik onena izatea, oso pozik eta gustura nabilen heinean, baina ez nago ehuneko ehuneko kopan zentratuta.

Orain beste lehenetasun batzuk ere badituzu.

Hori da. Esaterako, ahal izanda ere ez nintzateke Italiara bakarrik joango. Ez dut gura. Gozatu egin gura dut eta, une honetan, gozatzea familiagaz egotea edo basora entrenatzera joatea da. Eta horregaz batera munduko kopa on bat egiten badut, ba, oraindino hobeto. Lasterke-

“*Txakurrekin hasi nintzen korrika; haiek barik gurago dut ez irten entrenatzera*”

tetan erabat zentratzea erabakitzen baduzu, ez duzu besterik buruan, eta obsesio puntu bat ere bihurtzen da.

2015ean bigarrenez izan zinen ama. Espero zenuen orduan gaur egungo mailara helzerik?

Egia esan, ez. Progresioa izan da. Nik nire ibilbideak ditut hemen inguruan, eta entrenamenduak egin ahala, egunetik egunera hobeto nabilela ikusten nuen. Baina nagoen tokira helzerik ez nuen espero.

Lasterketen mundua uztea hausnartu zenuen?

Kia. Umeak izateak esan gura du haurdunaldi bat igaro duzula eta geldirik egon behar duzula denbora batez. Gero, hasteko gogoia izaten duzu! Urte batzuk lehenago hartu nuen atsedenerako denbora bat, bai. Espainiako kopa lehiatutako urteak nekagarriak izan ziren, fisikoki zein mentalki. Eta neure kabuz hasi nintzen denbora baterako.

Helmugaratzen zaren aldiro semeekin egiten duzu. Gogoan duzu lehenengoz noiz izan zen?

2014ko Zegama-Aizkorri. Alluitz seme nagusia besoetan hartuta sartu nintzen. Hamar hilabete zituen. Lo seko zegoen.

Buruan zeneukan zerbait zen?

Bai, bai, buruan neukan. Helmugara orduko umea emateko esan nion Mikeli [bikotekidea]. Ama izan ostean Zegama-Aizkorri amaitzeagaz pozik nengoen eta, gainera, helmugan semeagaz sartzeak ilusioa egin zidan.

Eta orain ohitura bihurtu duzu.

Bai, baten faltan orain bigaz. Alluitzegaz eta Ametzegaz. Txikia besoetan eta nagusia korrika. Horiexek dira unerik politenak. Lasterketa bat ez da egindako lana bakarrik. Semeak helmugan zain egongo direnaren pentsamenduagaz joaten naiz. ‘Umeak han egongo dira eta euren sartuko naiz helmugan’, horixe izaten dut buruan.

Seme biak umetatik ezagutzen ari dira lasterketen mundua.



Oihana Azkorbebeitia Urizar Abadiño, 1981
9 garaipen daramatza 2017an; uztailean munduko kopako hiru proba ditu



III. Arrasate-Udalatx proban, Udalatxen gora.



Lehior Elorriaga



Zegama-Aizkorri laugarren amaitu du goi mailako korrikalari batzuen aurretik.



Amaia Larrazea

Ametz besoetan eta Alluiz eskutik helduta helmugara sartzen. Amaia Larrazea

Bai. Gero, hazten doazen heinean, mundu honegaz ez dutela ezer jakiterik gura esango didate beharbada, baina tira. Euren gura duten bidea aukeratuko dute.

Lasterketetan ez ei duzu atzera inoiz begiratzen.

Horrela da. Sekula ez dut atzera begiratzen, bihurgune zabaletan ere ez. Ez nau arduratzen lasterketa nola datorren atzetik. Egin beharreko kilometroak aurrean daude, helmuga aurrean dago. Gainera, ez zait presioagaz ibiltzea gustatzen. Aurrean baten

bat ikusten badut, haren bila joaten saiatuko naiz, indarririk badut behintzat. Baina atzetik datozenei uneoro begiratzea... Presio hori ez dut atsegin. Baten bat atzetik badator, ba, datorrela, eta pasatzen banau, ba pasatu nau.

Entrenamenduetan ere ez duzu atzera begiratzen, Mikel zelan datorren jakiteko?

(Barreak). Bata besteari tiraka ibiltzen gara. Baina aspaldi ez gara elkarregaz korrika egitera irten. Bietako bat umeekin egon behar! Egiteko dugun zerbait da.

Beharbada zu baino gehiago ibiliko da.

Momentu honetan nahita ere ezingo lidake irabazi (barreak). Gustatuko litzaidake gerra emango balit, neu ere proban jarzteko. Baina... batek daki, beharbada sorpresa emango lidake!

Entrenamenduetara hutsik egiten ez duten txakur bi dituzu.

Txakurrik barik gurago dut entrenatzera ez irten. Txakur batetaz hasi nintzen entrenatzen. Hura hil zen, eta oraingo hauek —Bizi eta Kiñu ama-kumeek—

nigaz batera egiten dute arineketan, jaio zirenetik. Nire entrenamenduetako parte dira.

100 kilometroko probak, maratoiak, maratoi erdiak, km bertikalak... zer falta zaizu probatze-ko? Mendiko duatloia akaso?

Hiru Haundiak kenduta, ez dut beste ultrarik egin. 25 bat kilometrokoak politak dira. Maratoiak luzetxoak egiten zaizkit, baina ondo moldatzen naiz iraupen luzekoetan. Mendiko duatloiak ez nau erakartzen. Gainera, txakurak ezingo lirateke ni-

gaz etorri. Beraz..., ez. Bizikleta lanera joateko erabiltzen dut.

Baduzu entrenatzailerik?

Ez entrenatzailerik, ez entrenatzeko eskema finkorik. Horrek apurto egingo luke honek guztiak niretzat duen xarma. Ez daukat pultsometrorik. 20 urteko Casio bateko kronometroagaz nabil. Basora joan eta sentsazioei jarraituz entrenatzea gustatzen zait, eta ez makina batek dioenaren arabera. 'Zelan jagi naiz?', galdetu eta horren arabera erabakitzen dut nora joan.

hitz liburudenda

#gomendioak
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT
BARNE ALKIMIAKAKO
OINARRI
MAKROBIOTIKOAK
Egoitz Garro
2017

UME ETA GAZTEENTZAT
ESKULARRU
BELTZAK
Jasoite Osoro
2017

MUSIKA
COMPOSTELLE
Anne Etchegoyen
2017

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. - 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 575€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

BERRIZ. Etxebizitza guztiz berritua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitzak, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 160.000€ -tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berritua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserría berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000€

BERRIZ. 10.000m²-ko lursaildun baserría. Kokapen ona eta ikuspegi ederrak.

BERRIZ. Txaleta 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserrí ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserrí bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baserrí ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

ETXEBITZAK SALGAI

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



• **OSO EGUZKITSUA.** 111 m² erabilgarri, 4 logelarekin, egongela handia, 2 bainugela, hiru balkoi, garajea eta 18 m²-ko ganbara. **240.000€.** E.E.Z: zain.

PINONDO



• 67 m² erabilgarri. Ikuspegi ederrak. Dena kanpora begira, balkoia itxita. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela. Berogailuarekin. Igogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. **E.E.Z.F. 164.000€**

KALEBARRIA



• 68 m². 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak aldatuta eta berogailua. **E.E.Z.F. 125.000€**

IURRETA



• 55,24 m². Dotorea. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. Igogailua kaletik bertatik. Fatxada eta teilatu berria. **115.000€ E.E.Z: zain.**

ARAMOTZ



• 63,72 m²: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa, bainugela eta balkoia. Fatxada eta teilatu berria. **E.E.Z: G. 96.000€.** Neg

SAN FAUSTO



• Etxebizitza egoera onean, bizitzera sartzeko moduan. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Igogailua. **E.E.Z: F. 75.000€**

www.inmoduranguesado.com

ETXEBITZAK SALGAI

ASTARLOA (Jesuitak)



• 3 logela. 3 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua aukeran. **250.000€**

ASK. ETORBIDEA



• Ezkurditik gertu. 3 logela. Bainugela. Sukalde zabala. Egongela terrazarekin. **180.000€** **Negoziagarria.**

IURRETA



• 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Trastelekua. Igogailua. Eguzkitsua. **85.500€.**

ASTEPE



• 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Despentsa. Egongela. Trastelekua. Garajea. **226.600€.**

DURANGO



• Etxebizitza altua. 3 logela. Bainugela. Egongela. Berriztatua. Eguzkitsua. **145.000€** **Negoziagarria.**

ERMODO



• ERDI BERRIA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea terrazarekin. Egongela zabala. Ganbara. 2 garaje leku.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizitua eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Aramalo. Baserri etxea. Aukera asko ditu .360 m2-ko azalera, 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako Parke Naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669 064 788.

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

Zomotza. 3 logela, egongela 1, sukaldea, 2 bainugela, ganbara, balkoia, gasoil berogailua eta teilatu berria. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Tel.: 695 70 18 58.

ERRENTAN EMAN

Durungaldea. Atiko txiki bat alokatzen da, igogailuarekin. Bikote batentzako aproposa. Azoka inguruan dago. Prezioa: 490 euro. Tel.: 695-74 22 38.

ERRENTAN HARTU

Durango. Durango pisu bila gabiltzan bi neska arduratsu gara. Tel.: 666 949 313.

OPORRETAO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Durungaldea. Benidormeko Alde Zaharrean pisua alokatzen da. Tel.: 649-00 89 49.

ERRENTAN EMAN

Durungaldea. Fisioterapia zentro batek gela bat alokatzen du beste osasun profesional batentzat (psikologia, podologia, nutrizionista, logopeda...). Tel.: 944-66 94 00.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Durungaldea. Lan bila nabil etxeko

lanak egiten. Goizez, pare bat orduz, lan egiteko prest. Tel.: 697-49 20 58.

Durungaldea. Lan bila nabil. Garbiketari, adibidez. Durango edo kanpoan lan egiteko prest. Tel.: 622-62 32 16.

Durungaldea. Lan bila nabil etxeak garbitzen edo etxeko langile moduan. Goizetan 2 orduz lan egiteko prest. Tel.: 655-85 79 95.

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Pertsona arduratsua, erreferentzi eta eskarmentuarekin lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketari aritzeko prest. Behar lanean hasteko moduan. Tel.: 631-41 58 36.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 632-98 18 22.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen kanpoko zein barneko langile moduan. Erreferentzia zenbakia daukat eta berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 631-95 28 27.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Lanaldi erdian, osoan, orduka... aritzeko prest. Tel.: 631-85 06 74.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Esperientzia daukat eskolako jantokietan eta pertsona nagusiak zaintzen. Goizez, lanaldi erdian, orduka, zein gauz lan egiteko prest. Berehala hasteko prest. Tel.: 673-68 97 69.

Durungaldea. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketari aritzeko prest. Eskarmentu handikoa eta erreferentziak. Tel.: 631-20 36 07.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Esperientzia dut eta erreferentziak. Berehala hasteko moduan. Tel.: 631-95 28 27.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Astelehenetik barikura orduka edo barneko zein kanpoko langile moduan

lan egiteko prest. Tel.: 602-39 98 20.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko zein kanpoko langile moduan. Baita orduka ere. Tel.: 631-16 72 61.

Durungaldea. Gizon langilea lan bila dabil pertsona nagusiak paseatzera ateratzeko, landa eremuan lan egiteko eta baita baserriko lanetan aritzeko ere. Tel.: 631-27 91 26.

Durungaldea. Neska gazte euskalduna, EGA, First, monitore titulu eta Haur Hezkuntza ikasten dabilena prest dago haurrak zaintzeko, klase partikularrek emateko eta etxeko lanak egiteko. Lanerako gogo handia du eta badu esperientzia haurrak zaintzen. Tel.: 653 774 977.

Durungaldea. Mutil gaztea lan bila dabil, eraikuntzan edo baserrietako lanetan eta zaintzan. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 631-27 91 26.

Durungaldea. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen, orduka edo kanpoko langile moduan. Esperientzia dut eta erreferentziak ditut. Tel.: 722-56 22 41.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, kanpoko, barneko zein ordukako langile moduan. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketari lanak egiteko ere. Erreferentziak, berehala lanean hasteko prest. Tel.: 643-60 05 23.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketari lanak egiteko ere. Erreferentziak. Tel.: 612-41 41 40.

Durungaldea. Emakumea lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Esperientzia dut eta erreferentziak ditut. Paperak ditut. Tel.: 631-95 28 27

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketari lan bila nabil. Orduka, asteburuetan zein barneko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 612-49 25 19.

Durungaldea. Arratsalde plantxa egiteko eskaintzen dut neure burua, edo nagusiei laguntasuna emateko

zein paseatzeko ere bai. Tel.: 697-49 20 58.

Durungaldea. Nagusiak zaintzen edo garbiketari lanetan orduka zein barneko langile moduan jarduteko prest. Tel.: 632-87 04 16.

Durungaldea. Lan bila nabil baserriak zaintzen, baserriko lanak egiten, mendiko lanak egiten edo igeltsero lanetan. Tel.: 631-27 91 26.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketari ere aritzen naiz. Kanpoko edo barneko langile moduan. Astegunetan eta asteburuetan, baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 631-40 83 71.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest dagoen neska arduratsua naiz. Tel.: 602-81 24 42.

Durungaldea. Neska arduratsua naiz eta lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-86 44 26.

Durungaldea. Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Kanpoko edo barneko langilea. Tel.: 631-22 37 92.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Erreferentzia onak ditut. Tel.: 630-25 41 31.

Durungaldea. Etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kanpoko zein barneko langilea. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-84 30 26.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Tel.: 631-22 37 91.

Durungaldea. Esperientziadun emakumea lan bila nagusiak zaintzen. Tel.: 642-95 91 72.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan, baita etxetako garbiketari

ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 631-22 37 92.

LAN ESKAINTZAK

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Berriz pertsona bat zaintzeko bertako bat behar dugu. Ordu batzuetako lana. Tel.: 637-75 07 00.

GAINERAKOAK

Zaldibar. Zaldibarren ile-apaintzailea behar dugu amatasun baja bat betetzeko. Tel.: 946-82 67 76.

Durungaldea. Berrizko enpresa batean bulegoa, aldagelak, tailerra eta komuna garbitzeko, Boroako beste batean jantokia garbitzeko eta Eubakoan bulegoa, dutxa, bainugela eta aldagela garbitzeko langilea behar da sei hilabeterako. Kotxea edukitzea eta garbiketari sektorean esperientzia izatea ezinbestekoak izango dira. Kontakurako bideak: maria.arederra@urbegi.com Tel.: 677-90 79 23.

Denetarik

SALDU / EROSI

Hozkailua salgai. Hozkailua saltzen dut, 50 euroren truke. Iozkailua ez dabilen arren, erdi berri dago. Tel.: 636-04 63 18.

Mahaia salgai. Egurrezko mahaia salgai, kristalarekin gainean eta orde-nagailuarentzako lekuarekin. Interesa izanez gero, idatzi 695 70 62 27-ra, whatsapp bat bidali mesedez.

ERRENTAN

Auto klasikoak eskaintzen dira ospakizunetarako. Seat 600/mi morris klasikoak eskaintzen dira ospakizun desberdinetarako. Argazkiak eta informazio gehiago whatsapp bitartez. Tel.: 686-65 13 82.

Familia - etxea

ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

SALDU

Ikeako mahaia eta armairua salgai. Urtebete besterik ez dute, eta egoera oso onean daude. Armairua 60 euroren trukean eta mahaia ere 60. Biak batera erosiz gero, 110 euro. Tel.: 628 614 034.



LAN ESKAINTZAK IBAIZABAL IKASTOLA

DURANGALDEKO IBAIZABAL IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAK 2017/2018 IKASTURTERAKO HONAKO LANPOSTUAK ESKAINTZEN DITU

BATXILERGORAKO

Itzulpenzaintza eta Interpretazioan (Ingelesa eta Euskara) Lizentziatura, Gradua edo Baliokidea, Batxilergo eta Lanbide Heziketarako Irakaskuntza Masterra, EGA edo baliokidea. Baloratuko dira: bereziki lan eskarmentua, ikastolen proiektuan esperientzia, IKT prestakuntza eta heldutasun teknologikoa.

Ingeles Filologia edo Itzulpenzaintza eta Interpretazioan (Ingelesa) Lizentziatura, Gradua edo Baliokidea, Batxilergo eta Lanbide Heziketarako Irakaskuntza Masterra, EGA edo baliokidea. Baloratuko dira: bereziki lan eskarmentua, ikastolen proiektuan esperientzia, IKT prestakuntza eta heldutasun teknologikoa.

Arkitektura, Ingenieritza, Arkitektura Tekniko, Ingenieritza Tekniko Lizentziatura, Gradua edo Baliokidea, Batxilergo eta Lanbide Heziketarako Irakaskuntza Masterra, EGA edo baliokidea. Baloratuko dira: ingelesa C1, lan eskarmentua, IKT prestakuntza, heldutasun teknologikoa eta ikastolen proiektuen esperientzia.

HAUR HEZKUNTZA LANBIDE HEZIKETAKO GOI MAILAKO ZIKLORAKO

Pedagogia, Psikopedagogia Lizentziatura, Gradua edo Baliokidea, Batxilergo eta Lanbide Heziketarako Irakaskuntza Masterra, EGA edo baliokidea. Baloratuko dira: ipuin kontalaritza eskarmentua, psikomotritate ikasketak, IKT prestakuntza, heldutasun teknologikoa eta ikastolen proiektuen esperientzia

ADMINISTRARI LANETARAKO

Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Teknikaria, EGA edo baliokidea. Baloratuko dira: bereziki lan eskarmentua administrari lanetan, IKT prestakuntza eta heldutasun teknologikoa.

Curriculumak honako helbide honetan eskegi UZTAILAREN 9a baino lehen:
www.ibaizabalikastola.eus/eu/kurrikulunak

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Uztailaren 8an, 22:00etan, Abadiñoako Mendiola auzoan

Sermond's

Lau taldek joko dute Mendiolako jaietan, bihar. Tears & Beers, State Alerta, Akatz eta Sermond's taldeak gonbidatu ditu jai batzordeak Mendiolan aritzera. Kaleratu berri duen bosgarren diskoa aurkeztuko du Elorrioko Sermond's laukoteak.

Antzerkia

:: DURANGO

UZTAILAREN 14an

20:00etan, Femmes, Ezkurdin.

UZTAILAREN 21ean

20:00etan, Shakti Olaizola, musika eskolako parkean.

:: ELORRIO

UZTAILAREN 14an

22:30ean, Los Pelopidas, plazan.

Musika

:: DURANGO

UZTAILAREN 8an

20:00etan, Carlos Herrero, Kurutzasantu museoko lorategian.

UZTAILAREN 12an

21:00etan, Juan de Diego, Plateruenean.

UZTAILAREN 19an

21:00etan, Elkano Browning Cream, Plateruenean.

:: ELORRIO

UZTAILAREN 8an

22:30ean, Shaun Booker, plazan.

UZTAILAREN 13an

21:00etan, Maria Rivero, Portalekua tabernan.

UZTAILAREN 15ean

22:30ean, Mahotella Queens, plazan.

Jaiak

:: ABADIÑO (MENDIOLA)

UZTAILAREN 7an

18:00etan, txopoa ipintzea.

21:00etan, berakatz zopa auzotarrentzat.

22:30ean, Luhartz.

UZTAILAREN 8an

11:30ean, Mendiolako baserrien argazki erakusketa.

13:00etan, kotxe klasikoaren erakusketa.

14:30ean, herri bazkaria (bakoitzak bere jana).

16:30ean, umeentzako jolasak.

19:30ean, tortilla txapelketa.

22:00etan, Tears & Beers + State Alerta + Sermond's + Akatz.

UZTAILAREN 9an

14:00etan, Ugasixo txapelketa.

18:30ean, artzain-txakur txapelketa.

22:00etan, Amatitan mariachiak.

UZTAILAREN 10ean

11:30ean, meza.

12:30ean, dantzariak.

13:00etan, ardo, ogi eta gazta dastaketa.

:: ZALDIBAR

UZTAILAREN 7an

08:30ean, mendi irteera familiarra, udaletxe plazan hasita.

17:30-20:30, nagusien eskularen erakusketa, jubilatuen etxepean. Umeentzako herri kirolak, Jose Antonio Agirre parkean.

18:00etan, pilota partiduak, Olazar pilotalekuan.

19:00etan, trikibertsopoteoa.

19:00-22:00, Indarkeria sexistarik gabeko gunea, udaletxeke plazan.

22:30ean, Eskean Kristo + Bad Sound System, txosnagunean.

23:00etan, DJ Josemari, Euskal Herria etorbidean.

03:00etan, kulero, tanga eta galtzontzillo lasterketa.

UZTAILAREN 8an

10:00-13:00, arku-tiro jokoak ume eta helduentzat, Olazarko galerian.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00, umeen jolas parkea, eskolako jolastokian.

12:00etan, tortilla txapelketa, eskolako aterpean.

14:30ean, Gaztelekuko bazkaria.

16:00etan, 3*3 saskibalo txapelketa, kiroldegian.

17:30-20:30, nagusien eskularen erakusketa, jubilatuen etxepean.

17:30ean, olinpiadak.

19:00etan, afari-merienda Olea kalean, eta mojito poteoa elektrotxarangagaz.

00:00etan, Gozo-gozo erromeria, txosnagunean.

UZTAILAREN 10ean

11:00etan, kalejira trikitilariekin.

11:45ean, umeen euskal dantzak, Zaldua plazan.

12:00etan, M'Lomp taldearen dantza afrikarrak, Zaldua plazan.

17:30-20:30ean, nagusien eskularen erakusketa, jubilatuen etxepean

18:00etan, 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua, Zaldua plazan. Umeentzat txiki-chef, Jose Antonio Agirre parkean.

23:00etan, su artifizialak.

Erakusketa

:: DURANGO

UZTAILAREN 16ra arte

Jose Carlos Garayren 'Lerroak eta koloreak', Museoa.

Lehiaketa

:: ZORNOTZA

UZTAILAREN 9an

09:00etatik, Enrike Rementeria mago lehiaketa.



ZINEMA

:: BERRIZ OLAKUETA PLAZAN

Surf's up

. barikua 14: 18:30

Comanchería

. barikua 14: 21:30

:: DURANGO ZUGAZA

Baby driver

. barikua 7: 19:00-22:00
. zapatua 8: 17:00-19:30-22:30
. domeka 9: 16:30-18:45-21:00
. astelehena 10: 18:30-21:00
. martitzena 11: 20:00
. eguaztena 12: 20:00

Un don excepcional

. barikua 7: 22:00
. zapatua 8: 19:30-22:30
. domeka 9: 18:45-21:00
. astelehena 10: 21:00
. martitzena 11: 20:00
. eguaztena 12: 20:00

Despido procedente

. barikua 7: 19:30-22:00
. zapatua 8: 22:30
. domeka 9: 21:00
. astelehena 10: 18:30-21:00
. martitzena 11: 20:00

Gru 3

. barikua 7: 19:30
. zapatua 8: 17:00-17:30-20:00
. domeka 9: 16:30-18:45
. astelehena 10: 18:30
. eguaztena 12: 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA

La casa de la esperanza

. barikua 7: 20:15
. zapatua 8: 19:30-22:00
. domeka 9: 20:00
. astelehena 10: 20:15

UZTAILEKO AGENDA



8 SANTA ISABEL EGUNA SAN ANDRES AUZOAN
12:00 Meza. Ondoren, luntxa.

10 SANTA MAÑAKO JAIK ARRIANDI
19:00 Meza Azkorrao basilizan
Jarraian, sardinak, gozokiak eta edariak banatuko dira.

15 SANTA MAÑAKO JAIK ARRIANDI
18:00 Santa Mañako IV. Mus Relanpago Txapelketa.
Arriandi jatetxean

18 SANTA MAÑAKO EGUNA ARRIANDI
11:30 Meza. Santa Mañako basilizan
Jarraian, tortillak, gozokiak, karramarroak eta edariak banatuko dira.
Santa Mañako XL. Tortilla Txapelketa.
Santa Mañako XXXIII. Igel Txapelketa.

AMEZKETAKO ESKOLAN
18:00 Santa Mañako L. Briska Txapelketa.
19:00 Gorriti bere animaliekin, ume eta helduentzako jolasak, Amezetako inguruetan.

> BOTIKAK**BARIKUA, 7**
09:00-09:00**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Goiña, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 8**
09:00-09:00**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Goiña, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-13:30

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 9**
09:00-09:00**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango**Goiña, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 10**
09:00-09:00**Irigoiñ**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 11**
09:00-09:00**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 12**
09:00-09:00**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 13**
09:00-09:00**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguztaren 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Eneritz (683 znb.)!**
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu.
Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan:
Bixente Kapanaga, 9an.**> Urkok** 6 urte beteko ditu uztailearen 12an.
Musu erraldoi bat etxekoan partez, jarraitu horrelako majoa izaten!**> Ekaitzek** domekan 5 urte beteko ditu.
Zorionak, Haizea eta Aratzen partez.**> Parrapeko kondiai** 30 mosu potolo! Formal ibili herriko jaixetan!**> Zorionak, Nahia!** Egun zoragarria pasatuko zenuelakoan, besarkada handi bat aitatxo, amatxo, Maialen eta Pauleren partez!**> ZORION AGURRAK**

ZAPATUA	24° / 17°	
DOMEKA	23° / 16°	
ASTELEHENA	21° / 13°	
MARTITZENA	25° / 15°	
EGUAZTENA	25° / 15°	
EGUENA	22° / 14°	

Anbotoren lagunak

HITZ LIBURUDENDAK
emandako opari sorta
zozkatuko dugu Anbotoren
Lagunen artean. Zorte on!

hitz
liburudenda

AURREKO ASTEKO
ZOKKETAREN
IRABAZLEA
ALKI DEKORAZIOAK
emandako koadroa

M^a INMACULADA
GARCIA PEREZ

ZORIONAK!

Anboto komunikabideak
 @anboto
 @anbotokomunikabideak

Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

